2023ko martxoaren 31 | 21. urtea | 931. alea
Durangaldeko astekaria
www.anboto.org
anboto

"Irabazi gura badugu, gure mailarik onena eman beharko dugu"

Aitor Elordik binakako txapelketa nagusiko finala jokatuko du domeka arratsaldean, Zabaletagaz batera. Finalera "bete-betean" helduko dela dio mallabitarrak, baina, aurkarien maila ikusita, "euren mailarik onena" eman beharko dutela. Mallabian hainbat ekimen antolatu dute egunean zehar finala girotzeko, eta arratsaldean pantaila handi batean emango dute finala. • 20

FOKU

Juan Uribe omenduko dute Martxoaren 31ko ekitaldian, gaur arratsaldean

Durango • Juan Uribe Durangoko bonbardaketaren lekukoa omenduko dute Andra Marian egingo duten oroimen ekitaldian. • 10

Elorrioko Gazte Topagunean 'Bizitzeko modu bat' aldarrikatzeko prest

Elkarrizketa • Ernai gazte antolakundeak Gazte Topagunea egingo du Elorrion apirilaren 6an, 7an eta 8an. Jone Urizarbarrena eta Jon Ormaetxea elorriarrak "urduri eta gogotsu" daude egitasmorako. • 7

"Gure kultura eta tradizioak Zornotzara eta herritarrei zabaltzeko sortu genuen Juravca elkartea"

Erreportajea • Errumaniatik etorritako jende dezente bizi da Zornotzan. Euretariko asko lipovenar-errusiar jatorrikoak dira eta Juravca elkartean batzen dira. • 4

“Durangon 50 nazionalitatetik gora dago; gutxi izango dira horrelako aniztasuna duten herriak”

Verónica Redondo Durangoko Immigrazio teknikaria da. 16 bat urte daramatza herrira etortzen direnei laguntza ematen eta herritarren aurreiritziak apurtzeko egitasmoak garatzen. Durangoko immigrazioa anitza eta feminizatua dela dio

DURANGO • EKAITZ HERRERA

TOKIKOM tokiko komunikabideen sareak eta EITBk Saretzen proiektua ipini zuten martxan udazkenean, elkarregaz datu kazetaritza jorratu eta datuok modu bateratuan kudeatu eta ustiatzeko. Honako hau elkarlan horren bigarren atala da. Erakunde biek migrazio mugimenduei buruzko kazetaritza lanak kaleratuko dituzte egunotan. ANBOTOk eskualdeko herriburutik ekin dio lanari, Durangotik. Bertako Immigrazio teknikaria den Verónica Redondo Gurrutxaga (Bilbo, 1975) elkarrizketatu dugu gugaz bizitzera etorritakoen berri izateko.

Azken urteei erreparatuta, Durangoko migrazio mugimenduek erakusten dute joera aldaketarik?

Nikaragua herrialde emergentea da migrazio mugimenduei dagokienez. Izurria gertatu baino urtebete lehenago igarri nuen hori, gutxi gorabehera. Joera aldaketa bat hasi zen orduan, eta ikusi nuen Durangora etorritakoen artean profil bat hasi zela errepikatzen: Nikaraguatik hona etorritako emakumeena.

Zein arrazoi daude joera aldaketa horren atzean?

Esango nuke arrazoi nagusia herrialdearen egoera dela. Herrialde bakoitzean, migrazio fluxuak baldintzatzen dituzten hainbat kanporatze-faktore metatu daitezke. Arrazoiak askotarikoak izan daitezke eta posible da pertsona bakar batengan migratzeko hainbat arrazoik bat egitea. Funtsean, bizi baldintzak hobetzeko nahia eta egoera ekonomikoa dira migratzeko arrazoi nagusiak. Baina ez dira bakarrak. Herrialdeko ezegonkortasun politikoa, gatazkak, orientazio sexuala... pertsona batek arrazoi asko izan dezake migratzeko. Gero, harrera herriko erakarpen faktoreak daude. Nortzuk arduratzen dira gure adinekoen eta mendekoak diren pertsonen zaintzaz? Durangoko immigrazioaren ezaugarrietariko bat feminizazioa da.

> ***Izurria gertatu baino urtebete lehenago ikusi nuen Durangora etorritakoen artean profila aldatzen zebilela, emakume nikaraguarrak etortzen hasi zirela***

Feminizazio hori Nikaraguako kasuari dagokio ala zerbait orokortua da?

Orokortua da. Feminizazioa Latinoamerikatik datozenekin gertatzen da gehienbat. Emakumeak dira handik datozen gehienak. Lan munduan sartzen dira, egoera erregularizatzen dute eta familiako kideren bat —seme-alabaren bat, kasurako— dator azkenik. Afrikako migratzaileen kasuan, ostera, normalean gizonezkoak dira prozesu migratorio hori hasi eta egiten dutenak. Faktore kulturalak egon daitezke kontinentekako feminizazio desberdintasun horiek azaltzeko.

Herrialdeei eta kulturei dagokienez, zelako aniztasuna dago Durangon?

Hirigune handiak aparte utzita, gutxi izango dira Durangoren pareko herriak biztanle aniztasunari dagokionez. 50 nazionalitate baino gehiago batzen da hemen, eta esango nuke ezaugarri hori Durangoren bereizgarri dela. Herri anitza da, eta feminizatua Latinoamerikatik datozen herritarrei dagokienez.

Badago loturarik jatorri herrialdeen eta enplegu sektoreen artean?

Ez daukagu horri buruzko ikerketarik. Baina esango nizuke Latinoamerikatik datozenek etxeko lanetan jarduten dutela gehienbat, zaintza lanetan. Badira Magreb eskualdetik edo Senegaletik heldutako emakumeak, lan horietan badaudenak. Ostalaritzan ere topatu ditzakezu. Afrikatik etorritakoek enpresetan lan egiten dute gehienbat. Erreleboka, metalgintzaren sektorean eta halakoetan.

Atzerritarrak zelan sentitzen dira gure artean?

Atzerritarren komunitatea hemen abegikor sentitzen dela iruditzen zait. Atzerritarrek eurek halantxik adierazten dute berbaz. Baina, jakina, bada arbuioa edo mespretxua sentitu duenik ere.

Eta zein iritzi dute durangarrek hona bizitzera etorritakoen gainean?

Orokorrean herri abegikorra dela esango nuke. Immigrazio Sailean, adibidez, hainbat programa dugu hizkuntza, hartu-emanak eta elkar ezagutza bultzatzeko. Euretariko bat hizkuntza bikoteka lantzeko programa da. Berbalagun baten antzeko zerbait, baina bikoteka. Durangar batek hona bizitzera etorritako bati hizkuntzaren ahozkotasuna lantzen laguntzen dio, euskaraz zein gaztelaniaz. Programa hori orain dela hainbat urte ipini genuen martxan Gurutze Gorriagaz batera, eta ordutik hona 400 boluntariok parte hartu dute. Iruditzen zait kopuru esanguratsua dela.



Datuak: Durangoko Udala.

Datuek diotena baino aniztasun zabalagoa dago Durangaldean

DURANGALDEA • E.H.

Ondoko grafikoa ikustea besterik ez dago eskualdeko atzerritarren komunitatea zeinen anitza den ikusteko. Hori bai, datu orokorrak dira, INEk jasorikoak. Eta horrek esan gura du jatorri batzuk ez daudela datuotan islatuta. Beraz, komenigarria da grafikoetan agertzen direnetatik aparte, gurean beste hainbat komunitate ere badagoela adieraztea. Malitarrak, sahararrak, ghanarrak, kubatarrak, aberririk bakoak... Asko dira zenbakiotan agertu ez baina gure artera bizitzera etorri direnak.



Espainiako Estatistika Institutuaren 2021eko datuak.

Atzerritar kopurua Durangaldean, herriz herri

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Grafiko hauetan INE Espainiako Estatistika Institutuak 2021ean emandako datuak ageri dira. Atzerritarren komunitaterik handienak batu ditugu herrika, 2021ean jatorri zuten herrialdearen arabera.

Abadiño

Atzerritarrak guztira 2021ean: 615



Atxondo

Atzerritarrak guztira 2021ean: 96



Berriz

Atzerritarrak guztira 2021ean: 418



Elorrio

Atzerritarrak guztira 2021ean: 628



Garai

Atzerritarrak guztira 2021ean: 8



Iurreta

Atzerritarrak guztira 2021ean: 487



Izurtza

Atzerritarrak guztira 2021ean: 10



Mallabia

Atzerritarrak guztira 2021ean: 73



Mañaria

Atzerritarrak guztira 2021ean: 28



Otxandio

Atzerritarrak guztira 2021ean: 162



Zaldibar

Atzerritarrak guztira 2021ean: 323



“Ezagun bat dagoen tokira joatea normalagoa da eta gure kasuan ere horixe gertatu zen”

Zornotzan errumaniar asko bizi da; euretariko asko lipovenar-errusiar komunitatekoak dira eta Juravca elkartean batzen dira

ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO

Jatorri errumaniarra duen jende dezente bizi da Zornotzan. 831 lagun, hain zuzen ere. Zehatzago esanda, eta komunitateen historian arakatuz, Errumaniatik Zornotzara etorri zirenetariko askok jatorri errusiarra dutela ikusi daiteke. Komunitate horri lipovenar-errusiarrak deritzo. Haien historia laburtua honako hau da: XVIII. mendean Errusian izan zen erlijio-erreformagaz ados ez zegoen komunitate batek handik alde egin zuen eta munduko hainbat herrialdetan barreiatu zen; tartean, Errumanian. Zornotzan jatorri lipovenar-errusiar komunitate zabala dago eta Juravca kultur elkartean batzen da. Natalia Foca elkarteko presidentea da, eta Veronica Condrat —Nataliaren alaba— eta Natasa Listrat bertako kideak dira.

Natalia Foca, Veronica Condrat eta Natasa Listrat.

Badakizue lehenengo lipovenar-errusiarra noiz heldu zen Zornotzara?

Natasa Listrat: Nik dakidala 2002an etorri zen lehenengoa. Egunkariak saltzen zituen bizitzeko. Ni 2003an etorri nintzen eta ez nuen ezagutu, baina gogoan dut orduko gure lagun taldeetan horixe komentatzen zela.

Veronica Condrat: Normalean, pertsona bat etortzen da lehenengo. Lanean hasten da, etxebizitza bilatzen du eta egonkortzen denean bere familia ekartzen hasten da. Hasieran gizonak etortzen ziren lehenengo. Geroago emakumeak ere hasi ziren pauso hori ematen. Azken batean, ezagun bat duzun toki horretara joatea normalagoa da eta gure kasuan ere horixe gertatu zen.

Natalia Foca: Ni etorri nintzenean, 2003an, lipovenar-errusiarren 20 bat familia zeuden Zornotzan eta Gernikan. Gutxi ginen eta sarritan batzen ginen: baten etxean, barbakoa baten inguruan... Orain baino batuago geunden.

V.C.: Kalean gureetariko bat ikusiz gero bere berri jakin gura zenuen: nongoa zen, zelan zegoen... Orain desberdina da. Seme-alabak jaiotzen hasten dira eta familia-nukleoetan batzen gara gehiago.

Zuetariko askok Juravca izeneko elkartea sortu zenuten. Koru bat duzue eta kultur ekimenak antolatzen dituzue.

N.L.: Hasieran, elkarteak ikuspegi erlijiosoa zuen batez ere. Gerora, elkartea beste eremu batzuetara zabaltzen joan da. Gogoan dut sasoi batean Lipa Amorebieta futbol talde bat ere izan genuela. Bestalde, kultur esparruari dagokionez, Juravca abesbatza sortu zen.

N.F.: Azken batean, elizako kontuei loturiko elkartea itxiagoa da. Barruetan batzen ginen, mezatan-eta. Gu eta gure kultura nahiz tradizioak herrira zabaltzeko eta hartu-emanak sustatzeko, beste zerbait behar zen eta 2008an Juravca sortu genuen. 2019tik elkarte propio modura funtzionatzen dugu.

V.C.: Izenak kurrilo hegaztiari egiten dio erreferentzia. Migrazio hegaztia da eta beragaz identifikatuta sentitzen gara. Kurriloak lez migratu beharra izan dugu eta urtean behin gure sorterrira bueltatzen gara. Gure kasuan, gehienok Errumaniako Slava Cercheza herrikoak gara, Tulcea zonaldekoak, Itsaso Beltzetik eta Danubioren deltatik gertu.

Urtean behin jaialdi bat antolatzen duzue.

V.C.: Tilofest deitzen da. Historikoki ezkiak edo tiloak lotura estua izan du gure kulturagaz eta gure jatorriagaz, eta horregatik izen hori. Ezkia ekainean loratzen da eta hile horretan egiten dugu jaialdia; aurtengoa ekainaren 17an izango da. Ez gara gure kulturara bakarrik mugatzen. Kulturen arteko jaia izan dadin ahalegintzen gara. Euskal Herrian bizi diren askotariko komunitateetako elkarteak gonbidatzen ditugu.

Zornotza

Atzerritarrak guztira 2021ean: 2.251

Errumaniarren komunitaterik handienak Hego Euskal Herrian

Hirigune nagusiak albo batera utzita, Zornotza da Errumaniako komunitaterik handiena batzen duen Hego Euskal Herriko udalerria. 2021ean 831 ziren Errumania jatorrizko herrialde zuten zornotzarrak, biztanleriaren %4,24 urte hartan.



anboto

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2023ko martxoaren 31a
21. urtea - 931. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabarri.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretti Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua: BI-2268/01
ISSN: 1578-7028
Tirada: 12.000 ale

LAGUNTZAILEAK

Bizkaia foru aldundia diputación foral
Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

ABADIÑO AMOREBIETA - ETXANO ATXONDO BERRIZ DURANGO ELORRIO GARAI IURRETA IZURTZA MALLABIA MAÑARIA OTXANDIO ZALDIBAR

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

“Immigrazioak ekonomikoki ekarpen ikaragarria egiten du gizartean"

Saretzen 2.0 ekimenaren barruan immigrazio prozesuei buruz berba egin dugu Xabier Aierdi Urraza soziologoagaz

MIGRAZIOA • GEURIA

Migrazio mugimenduez eta batez ere immigrazioaren inguruan berba egiteko jo dugu Xabier Aierdi Urraza (Zeberio, Bizkaia, 1957) soziologoarengana. Immigrazioan eta gizarte-zerbitzuetan aditua da eta Ikuspegi Immigrazioaren Euskal Behatokiaren sortzailea eta zuzendaria izan zen 2003tik 2011ra bitartean. Era berean, immigrazio gaietan Begirune Ikerketa Laborategiko zuzendaria izan zen 2011tik 2013ra, eta Eusko Jaurlaritzaren aholkularia 2014tik 2016ra Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailean. Saretzen proiektuaren bigarren kolpe honetan, migrazioari buruz eta Hego Euskal Herrian immigrazioak izan duen eragina aztertu dugu beragaz batera.

Ikuspegiren esanetan, Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan jatorri ez espainiarreko 56.868 pertsona zeuden, biztanleria osoaren % 2,6. 2022ko urtarrilean, 253.034 ziren atzerrian jaioak (% 11,5). Datuak ikusita, nabarmena da jatorri ez espainiarra duten pertsonen hazkundea EAEn.

Errealitate berri baten aurrean gaudela erakusten dute datuok, baita errealitate hau egiturazkoa izango dela ere. Norbaitek uste badu joan-etorriko pertsonen aurrean gaudela, hori ez da horrela: datozen pertsonak bertan geratuko dira eta bertan garatuko dute euren bizitza. Gizarte berri bat sortuko dela pentsatu behar dugu, jatorri desberdinez osaturikoa, eta gure erronkak zelanbaiteko hiritartasun praktikoa bultzatu behar duela.

Zein da erronka horren ardatza?

Bizitzeko merezi duen gizarte bat sortu behar dugu. Denentzat aukera berdinak egongo direla eta pixkanaka-pixkanaka aukerak berdinduko direla ikusi behar dugu. Eta etorkizunera begira etekinak emankorrak izango direla pentsatu. Askotan planteatzen da immigrazioa alboko bide bat bezala, eta oso inportantea da jakitea immigrazio prozesua oso gogorra dela. Azken finean, goranzko mugikortasuna bermatzeko tresneria bat ipintzea lortu behar dugu, adibidez, pertsona migratzaileen seme-alabek bertan ikasi dezaten.

Etorkinen bigarren belaunaldia litzateke.

Hala da. Immigrazioaren lehen belaunaldiak askotan barneratuta ekartzen du zelanbaiteko sakrifizio bat edo autoimmolazio bat. Hau da, eurek badakite hona datozela, badakite hemen kokatuko direla, badakite bizitza gogorra egingo zaiela, baina edozein familiak edo gurasok bezala, oso gauza sinple bat gura dute: seme-alabei ondo joan dakiela.

Hau da, ondorengoen ongizatea bermatzea.

Bai. Immigrazioa da, beharbada, bizitzan dagoen fenomenorik arruntena. Hau da: “Zer gura duzu? Bada, nire ondorengoek izan dezatela agian nik izan ez dudan bizitza, eta ondorengoen ondorengoek izan dezatela bizitza arrunt bat”.

Migrazio prozesuez galdetuko banizu...

Migrazioak oso prozesu sinpleak dira, baina prozesu horren barruan gogortasun gradu desberdinak daude. Zoritxarrez, immigrazioaren fenomenoa desenfokatu egiten dugu: pentsatzen dugu Mediterraneoa dela dena, edo sufrimendua dela dena. Eta ez. Migrazioaren % 90 beti funtzionatu duen mekanismoa izan da gure gizartean: norbait dator eta norbait horrek bere anaiari, nebari, arrebari edo ahizpari deitzen dio, eta gero horiek euren auzokoei, ezagunei, lagunei... deitzen diete. Eta horrela heltzen gara toki askotan gertatu izan denera: jatorri eta herri bereko jende multzo bat dagoela kokatuta auzoetan.

Zergaitik etortzen da jendea atzerritik?

Azken finean, sumatu duelako hemen eskasia bat zegoela. Eta eskasia non zegoen? Bada, beharbada guk ikusten ez genuen arlo batean. Esate baterako, etxeko lanak eta zaintza lanak ikusezinak izan dira. Soziologook lan mundua aztertzen oso berandu deskubritu dugu enplegua gauza bat dela eta lana beste gauza bat. Gizarte batek lan kopuru oso baten ondorioz funtzionatzen du, eta ez enplegu baten ondorioz. Oso aldaketa sakonak egon dira familietan: txikitu egin dira,

> ***Askotan planteatzen da immigrazioa alboko bide bat bezala, eta oso inportantea da jakitea immigrazio prozesua oso gogorra dela***

zaintza-lanak bete ezinda geratu dira eta guri batez ere biztanleria latinoamerikarra heldu zaigu arlo hori guztia kubritzeko, eta batez ere feminizatua.

Horrek inbertsio handiak eskatuko lituzke, baita arlo horretan gizona sartzea ere modu erradikalean.

Horiez gainera, Europatik ere etorri da beste jende bat antzeko gauzak egitera, baina era berean gauza desberdinak egitera ere. Adibidez, Errumaniatik etorri izan den jendea sektore industrialean sartu da, eta oso ikusgarria da momentu honetan etorkinen portzentajerik handiena Ordizian egotea. Batez ere errumaniarrak dira.

Hortaz, guk bete ezin ditugun premiak asetzera etorri dira immigranteak gurera.

Tokian tokian osaera desberdinak aurki daitezke udalerri desberdinetan, udalerri horietan dauden premia desberdinen arabera. Hori oso inportantea da. Orduan, zertara etorri dira? Bada, guk konpondu ezin ditugun premia batzuk asetzera, bai.

2002an, batez ere Latinoamerikatik etorri ziren etorkinak Hego Euskal Herrira. Hogei urteren ondoren, gorabehera gehiago izan da, eta Europatik edo Afrikatik ere etorri dira herritarrak.

Hemen, alde batetik, premietara zuzenean zuzentzen diren jatorriak ditugu; batez ere, latinoamerikarrak eta Europa erdialdetik etorritakoak. Baztertu ezin dugun beste fenomeno bat da Afrika oso gertu dagoela, eta horrek ere bere baldintzak inposatzen ditu. Kontuan izan behar da marokoarrak ere lehendik bazeudela hemen, hala nola Eibarren, Ermuan, eta inguru horretan. Gaur egun marokoarren kopurua ugaritu egin da, hurbiltasunagaitik. Maroko zelanbaiteko erreguladore bat da; baita Libia, Tunisia eta Turkia ere.

Migrazioagazko ikuspegia aldatu egin dela esango zenuke?

Uste dut migrazioagazko irudia lasaitu egin dela. Bere momentuan zeuden usteak, zelanbait, nobedadeagaz batera zetozen, baina, era berean, beldurra eragiten zuten neurri batean. Ikara horren ondorioz, bazegoen mesfidantza handiagoa immigrazioarekiko. Ikuspegik ateratzen dituen datuak ikusten ditudanean, tolerantzia indizeek gora egiten dutela konturatzen naiz, lehen zeuden kezkak baretu egin direla. Horrek normaltasun bat adierazten du. Eta seguruenik horren atzean badago kontzientzia nabarmenago bat hau estrukturala izango dela adierazten duena. Gizarte honetan oso balio positibo asko dago eta immigrazioaren onarpen handia dago. Azken 20 urtetan bost gertakari egon litzeke erakusten dutenak oso xenofobia argi bat. Beste gauza bat da diskriminazio leunak: etxeak ez alokatzea, eskoletatik alde egitea migratzaile asko datozenean... Horrelakoak ere egon badaude, egongo dira, eta horiek zuzendu beharko dira tresneria instituzionala ipinita. Hala ere, esango nuke orokorrean badagoela onarpen handiago bat. Pentsatu behar dugu hau etorkizuneko ezaugarri bat dela, Euskal Herriko gizartearen osaera oso konplexua izango dela hemendik urte batzuetara. Astiro-astiro onarpen hori nabarmena da.

Muruetatorre dorretxeko infografia.

Muruetatorre dorretxea, kulturaren eta elkarteen topaleku izateko bidean

Durangoko Udalak eraikina eraberrituko du, 682.000 eurogaz. Lanak lizitaziora atera dituzte. Eraikina inguruko bizilagunek erabiliko dute, gizarte etxe legez

DURANGO • EKAITZ HERRERA

Gaur egun hutsik dagoen Muruetatorre dorretxea inguruko auzotarren erabilerarako gizarte etxe izango da laster. Durangoko Udalak eraikina berrituko du, elkarteentzako eta kultur eragileentzako gunea sortzeko bertan. Eraikineko lau solairuak modu honetan antolatzea aurreikusi du udalak: sotoan aireztapen eta biltegi instalazioak egongo dira. Beheko solairua erabilera anitzeko espazio legez erabiliko da. Lehenengo solairuak elkarlaneko tailer bat eta prestakuntzako beste bat izango ditu. Azkenik, teilatupean, bilera gela bat, elkarteentzako beste bat eta kudeaketa-bulego bat ipiniko dute.

"Apustu garrantzitsua"

Udal agintariak auzotarrekin batu dira proiektuaren berri emateko. Agintariek azaldu dute "oso apustu garrantzitsua" dela honako hau. "Gizarte etxeen bitartez auzoak biziberritzeko tresnak eman gura dizkiegu durangarrei. Auzo indartsuak dituen Durango bat gura dugu, non auzo bakoitzak bere dinamika propioa garatu ahal izango duen, eta, horretarako, garrantzitsua da durangarrei baliabideak ematea", adierazi dute. Eraikina birgaitzeko lanak 682.800 euroan atera dituzte lehiaketa publikora. Kopuru horretatik 211.000 euro Europako funtsei eskerrak finantzatuko dira.

Eraikina 1.100 metro karratuko lursail hesitu batean dago eta berau ere zabalduko da herritarrentzat. Eraikina 1660. urte ingurukoa da eta balio sinboliko handiko eraikin historikoa da.

Osasun Sailak ebatzi du Durango "leku egokia" dela Gaitasun Handiko Osasun Zentroa ipintzeko

EAJ pozik agertu da albisteagaz. Gainerako alderdiek ez dute kritika ezkutatu. EH Bilduk "zuhurtziaz" jokatuko duela dio

DURANGALDEA • E.H.

Gotzone Sagardui Osasun sailburuak gutun bat helarazi dio Mankomunitateko presidente Mireia Elkoroiriberi, Durangaldeko osasun beharrizanei buruzko azterketaren harira. Sagarduik sinaturiko gutunak dioenez, ikerketa horren "ondoriorik garrantzitsuena" da "Durango leku egokia dela egungo osasun zentroak ordezkatuko dituen Bereizmen Handiko Zentro berri bat kokatzeko". Osasun sailburuaren berbetan, zentro berezi horrek "ohiko prestazioak gainditzen dituzten probak eta prozedurak" hartuko lituzke, zerbitzuak "herritarrengana hurbildu", eta prozedurok "ospitale inguruetatik kanpora" eginda. Mankomunitateak dioenez, txostenak jasotzen du azpiegitura hori Durangoko "erdialdean" egin beharko litzatekeela, eta Landakon zein anbulatorio zaharrean eskaintzen diren zerbitzuak "zentro handiago batean bateratu" beharko liratekeela. EAJk txostena txalotu du. EH Bilduk "zuhurtziaz" jokatuko duela dio. Herriaren Eskubideak dio osasun arazoei ezin zaiela "zementuz bakarrik" aurre egin. Podemosek dio EAJ "kanpaina" egiten dabilela.

Laban egitea saihesteko lanak hasi dituzte Durangoko Alde Zaharrean

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak Alde Zaharreko kaleetan laban egitea ekiditeko lanak hasi ditu. Tratamendua Barrenkalea, Artekalea, Goienkalea, Kalebarria, Komentukalea, Andra Maria eta Zeharkalea kaleetan egingo dute; 12.076 metro karratuko eremuan, guztira. Horrez gainera, tratamendua Ezkurdi aldera ere zabaltzea aurreikusi dute, hango arkupeetara. Astelehenean ekin zioten lanari, Sanmartipetik. Tratamendu honek 8-10 urteko iraupena izatea gura dute.145.000 euroko inbertsioa egingo dute guztira.

Landaederra eta Santa Luzia aldeko baso bi erosiko dituzte, lurrotan bertoko espezieak sartzeko

Durangoko Udalak 8 hektarea erosiko ditu guztira

DURANGO • E.H.

Durangoko Udalak baso bi erosiko ditu bertoko espezieak sartzeko eta biodibertsitatea zaintzeko. Lur arlook Landaederra eta Santa Luzia inguruetako basoak direla azaldu dute prentsa oharrean. Batetik, Basobaltza deritzon arloa erosiko dute, Landaederrako merenderoaren ondoko eremua. Zuhaitzak eta fruitu arbolak sartuko dituzte han. Bestetik, Santa Luzia eta Katazka auzoen arteko tartea erosiko dute. Han ere espezie autoktonoak landatuko dituzte.

Udal ordezkariak Landaederrako inguruetan.

PSE-EEk Durangaldeko alkategaiak aurkeztu ditu

Abadiñon, Berrizen, Durangon, Iurretan, Zaldibarren eta Zornotzan aurkeztuko diruzte maiatzerako hautagaiak

DURANGALDEA • JOSEBA DERTEANO

Durangaldeko herrietarako alkategai batzuk aurretik ere ezagutzen ziren —Jesica Ruiz Durangotik eta Javier Crespo Abadiñotik, esaterako— baina beste batzuk orain egun gutxi jakinarazi dituzte. Honako hauek dira joan zen astean hautagaitzara batu diren alkategaiak: Zornotzatik, Alicia Hernández; Iurretatik, Julen Calleja; Berriztik, Carmen Marco, eta Zaldibartik, Pepe Caro. Bizkaiko Batzar Nagusietarako hautagaia Teresa Laespada izango da eta Durangaldea-Arratia barrutiko zerrendaburua, Alberto Álvarez.

Joan zen barikuan aurkeztu zituzten hautagaitzak, Gerediagako foru zelaian.

“Erraza da nostalgian jaustea, baina saihestu egin gura dugu hori; horregaitik abesten diogu orainari”

Ernaik Gazte Topagunea egingo du Elorrion apirilaren 6an, 7an eta 8an; "bizitzeko beste modu bat" posible dela aldarrikatzen dute

DURANGALDEA • ARITZ MALDONADO

Hogei urteren ondoren, Gazte Topagunea Elorrion egingo dute berriro. Orainaren eta bizitzeko modu baten aldeko aldarria egin gura du Ernaik, eta, horretarako, milaka gazte batu gura ditu eskualdean. Ernaiko militanteak diren Jone Urizarbarrenagaz (Elorrio, 2002) eta Jon Ormaetxeagaz (Elorrio, 2000) berba egin du ANBOTOk. "Apur bat urduri, baina gogotsu" daude aurrean duten erronkagaz.

'Bizitzeko modu bat' aldarrikatzen duzue.

Jon Ormaetxea: Egungo gizarte ereduak eta neoliberalismoak indibidualizaziora garamatzate, bakoitzak bere buruarengan bakarrik pentsatzera, eta, horregaitik, etorkizunerako bestelako Euskal Herri bat proposatzen dugu guk, independentea, sozialista eta feminista, balio komunitarioetan oinarritzen dena; proiektatzen ditugun balioen erakusleihoa da Topagunea, ekimen erraldoi bat, komunitarioa, herriko, eskualdeko eta Euskal Herri osoko jendea inplikatzen duena.

Jone Urizarbarrena: Jendarte osoari egiten dio erreferentzia, zelan bizi garen eta zelan bizitzea gustatuko litzaigukeen.

Orain hogei urte ere Elorrion egin zen Gazte Topagunea.

J .U.: Aurrera jarraitzen dugula erakusteko aukeratu da Elorrio, nik uste; zer izan ginen eta zer garen erakusteko. Orain hogei urteko Topagune hori hor dago eta jende askok konparaziora jotzen du; batez ere Elorrion bertan igartzen dugu hori. Jende nagusia orain dela hogei urteko topagune hori berriro gogoratzeko joango da. Badu bere ikutu nostalgikoa ere.

J .O.: Berri Txarraken *Bisai berriak* abestia oso famatua da orandino ere. Erraza da nostalgia horretan jaustea, baina saihestu egin gura dugu hori. Horregaitik abesten zaio orainari aurtengo Topaguneko abestian [Sünek egin du aurtengo abestia: *Orainari*].

Ernaik hamar urte bete ditu aurten. Zelan dago antolakundea?

J. O: Ibilbide gorabeheratsua izan dela esango nuke. Sortzea ilusiozko garai bat izan zen, gazte antolakundea legeztatu zen, eta etapa gogor bat atzean uzteko, koloretsu jaio zen. Momentu honetan, Ernai

> ***Momentu honetan Ernai egonkortuta dagoela esango genuke, ondo militantzia aldetik, bai Euskal Herrian, baita Durangaldean ere***

egonkortuta dagoela esango nuke, ondo militantzia aldetik, bai Euskal Herri osoan, baita Durangaldean ere. Eskualdean, sei herritan ditugu taldeak; aurten, Berrizen sortu dute taldea, eta iaz Iurretan... momentu on batean gaudela esango nuke.

J .U.: Topagunea ere aukera ona da, gainera, indar hori erakusteko, gure komunitaterik zabalenagaz batu eta ikasteko. Batez ere gazteentzat izan arren, adin tarte guztietarako proposamenak ere badaude.

Okm:
batzen gaituen distantzia

abantaila guztiak hemen >

30€ urtean!

Egin zaitez anbotokide!

anboto kide

Abadiñoko Udalak eta URAk 6,3 milioi euro ipiniko dituzte Ibaizabal errekaren uholde arriskuari aurre egiteko

EAJko eta Independienteetako zinegotziek hitzarmenaren alde bozkatu zuten. EH Bildukoek, ostera, kontra

Ibaizabal erreka Astolatik igarotzen.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Martitzeneko osoko bilkuran, Abadiñoko Udalak eta Uraren Euskal Agentziak lankidetza hitzarmena sinatu zuten. Ibaizabal errekak duen uholde arriskuari amaiera ematea da hitzarmen horren asmoa. Horretarako, lau urterako lan programa bat ezarri dute eta alde bien artean 6,3 milioi eurotik gorako zenbatekoa ordainduko dute.

"Erakundeen arteko lankidetzak aukera emango digu Traña-Matienan uholdeei aurre egiteko, eta, ondorioz, segurtasuna eta ondasun pertsonal eta materialen babesa hobetzeko funtsezkoak diren obra horiek martxan ipintzeko. Hau da, Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berriro ere martxan ipintzeko", adierazi zuen Mikel Garaizabal Abadiñoko alkateak osoko bilkuran. Gainera, bidea "luzea" izan arren, HAPOa martxan ipinita "gura dugun herri modeloa" martxan ipiniko dutela azaldu zuen.

Hitzarmenak hainbat jarduera batzen du. Lehenengo eta behin, Sarria ibaian ibilgua zabaltzea eta Laubideta kaleko zubiaren eta Ibaizabalegaz bat egiten duen gunearen artean uholde-ibilgu bat egitea. Bigarrenik, Trañapadurako zubi berriaren arteko tartean ibilgua zabaltzea ere aurreikusten da. Eta, azkenik, Ibaizabal errekari dagokionez, Astolako industrialde inguruan ibilgua eskumako ertzerantz zabaltzea, uholdeak gertatuz gero urak har dezakeen eremu bat sortuta, besteak beste.

Javi Crespo Independienteen bozeramaile eta Abadiñoko alkateordeak adierazi zuen "oso egokitzat" hartzen dutela hitzarmena. "Herriak hazi egin gura badu, derrigorrezkoa da hitzarmen hau sinatzea eta lan horiek egitea. Bestela, ezinezkoa izango da, HAPOa geldirik izango dugulako", gaineratu zuen.

EH Bilduko bost zinegotziek, ostera, udalaren eta URAren hitzarmenaren kontra bozkatu zuten. "URAren jarrera lotsagarria da. Bere konpetentzia diren lanak egiteko Abadiñoko plan orokorra bahitu egiten du, eta, ondoren, erreskate bat eskatzen du. Hau xantaia da", kritikatu zuen Mikel Urrutia EH Bilduren bozeramaileak. "Gainera, uholde-arriskuari aurre egiteko barik, horrela lur horietan eraiki ahal izango delako eta dirua mugitzen delako egingo dira lan horiek", gaineratu zuen Urrutiak. "Udalak 2.325.000 euro gastatu beharko ditu honetarako, eta ez dugu dirurik izango herriari zerbitzu hobeak emateko", zehaztu zuen Urrutiak.

Lan hauek eginda, geldirik dagoen Plan Orokorra berriro martxan ipini ahal izango da

Feminismotik loratzeko eskaintza zabala Elorrion

Emakumeen boteretzea helburu duten hainbat berbaldi, ikastaro, lantegi eta jarduera antolatu dute

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Elorrioko Udaleko Berdintasun Sailak emakumeei zuzenduriko udaberriko ikastaroak antolatu ditu. "Gure politikek Elorrioko emakumeen boteretze-prozesu indibidual, kolektibo, sozial eta politikoak sustatzea dute helburu, eta, horretarako, behar-beharrezkotzat jotzen dugu ikuspegi feminista duten ikastaro, hitzaldi, erakusketa, topaketa eta bestelakoak antolatzea", azaldu du Alazne Mendizabal Berdintasun zinegotziak.

Guztira, hiru lantegi eta ikastaro bi antolatu dituzte. Bestalde, berbaldi bi ere egongo dira eta *Emakumeak oholtzan* jardunaldiak ere egingo dituzte. Horrez gainera, Iturri Kultur Etxean *Lumineszenteak* izeneko erakusketa egingo dute. Eta, ekainaren 22an, ikasturte amaierako jaia egingo dute ikasturtean zehar ekimen hauetan parte hartu duten emakumeekin.

Atxondoko Haurreskolan ate irekiak egingo dituzte

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Haurreskolako kideek ate irekien jardunaldia egingo dute apirilaren 21ean, herritarrei euren instalazioak erakusteko asmoz. 16:00etatik 18:00etara izango da jardunaldia eta ez da izenik emon beharko aurretik.

Apirilaren 24an hasiko da matrikulazio epea eta maiatzaren 16ra arte egongo da zabalik

Behin Haurreskolako ate irekien jardunaldia eginda, matrikulazio epea zabalduko dute. Apirilaren 24an ekingo diote matrikulazioari, eta maiatzaren 16ra arte egongo da epea zabalik. Nobedade lez, aurten matrikulazioa doakoa izango dela gaineratu dute.

Jose Luis Navarro da Abadiñoko Independiente Berriak taldeko zerrendaburua

Abadiñoko Independienteak Berriak taldeko hautagaitza.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Urtarril amaieran Abadiñoko Independienteek iragarri zuten ez zirela maiatzeko hauteskundeetara aurkeztuko eta taldea desegiteko erabakia hartu zutela. Bestalde, Jose Luis Navarrok politikara bueltatzea erabaki duela iragarri zuen martxoan, eta asteon talde berriaren berri eman dute. Taldea Abadiñoko Independiente Berriak deitzen da eta Jose Luis Navarro da zerrendaburua. "Benetan independiente modura aurkezten gara berriro, sigla politikorik barik. Independenteak gara, berdin dio nori gustatzen zaion", azaldu dute prentsa ohar bidez.

"Ilusioz" daudela azaldu dute. "Orain dela 24 urte ilusioz geunden eta lan egin gura genuen; gaur, ilusioz eta lan egiteko gogotik aparte, esperientzia dugu, eta, gainera, gugaz dauden gazteekin batera emaitzarik onena izango dugu", gaineratu dute.

Jan Alai pintxo lehiaketa ekainaren hasieran bueltatuko da Zornotzako tabernetara

ZORNOTZA • EKAITZ HERRERA

Hasita dago atzera kontaketa. Zornotzan jada tradizio bihurtu den pintxo lehiaketa ekainaren 1etik 4ra jokatuko da. Sari ugari egongo da jokoan. Epaimahai tekniko batek halantxik erabakita, pintxorik onena prestatzen duen tabernariak 1.000 euro irabaziko ditu. Kontsumitzaileek ere aukeratuko dute pintxorik onena, boto bidez. Eta pintxo hori prestatu duen taberna irabazleak ere 1.000 euro irabaziko ditu. Ostalaririk profesionalena zein den ere boto bidez aukeratuko dute bezeroek. Onuradunak 250 euro eskuratuko ditu. Azkenik, Zornotzako Dendariak eta Iraunkor elkarteek sari berezi bi emango dituzte. Lehenengoak tartera-ontzi batzuk zozkatuko ditu bezeroen artean, eta, bigarrenak, 3 produktu-otzara. Bezeroek ezinbesteko baldintza bat bete beharko dute botoak eman ahal izateko. Lehiaketan zehazturiko eremu bakoitzean, gutxienez hiru tabernatako pintxoak dastatzea.

Aurten pintxo lehiaketaren hamargarren edizioa dela ospatzeko, zerbait berezia egongo dela aurreratu du Esti Martiartu zinegotziak. Oraingoz ez ditu xehetasun guztiak eman, baina iragarri du herritarrek pintxo batzuk debalde dastatzeko aukera izango dutela. Horretarako, kale animazioak "adi" jarraitu beharko direla aurreratu du.

Iazko urrian jokaturiko txapelketaren irudi bat. Kuadrilla bat, Venecia kafetegiko pintxoa dastatzen.

Helegitea Urgozori, "ustezko irregulartasunak" direla eta

EH Bilduk helegitea ipini dio kiroldegia eraikitzeko proiektuari. Gobernu taldeak "harridura" agertu du

ZORNOTZA • E.H.

Zornotzako Urgozo kiroldegia eraikitzeko lanek bira berri bat izan dute asteon. Martitzenean, udalak jakinarazi zuen EH Bilduk helegite bat ipini ziola kiroldegi berria eraikitzeko obra kontratuari. Eta, eguaztenean, koalizio subiranistak helegite hori ipintzeko oinarriak zeintzuk izan diren azaldu zuen, ohar baten bitartez. EH Bilduk dio "ustezko irregulartasunak" direla-eta ipini duela helegitea. Euren esanetan, udal gobernuak egitasmoaren kontratua "zatitu" du, proiektua "berez dagokion prozedura publikoa egin barik esleitu ahal izateko". Koalizioak egindako interpretazioaren arabera, udal gobernu taldeak Kontratuen Legea "urratu" du. "6.500.000 eurotan esleitu dute obra, kantxak, harmailak, saskiak, altzariak, urbanizazioa eta beste hainbat elementu proiektuaren barruan sartu barik", azaldu dute oharrean.

Zornotzako udal gobernuak "harrituta" jaso du helegitea, horrek "udal teknikarien lana eta profesionaltasuna zalantzan" ipintzen duelakoan. Udalaren berbetan, errekurtsoa Euskadiko Kontratuen inguruko Errekurtsoen Administrazio Organoaren esku dago momentu honetan, ebazpen zain. Udalak gatazka "ahalik eta lasterren" ebaztea gura du, "Urgozoko obrak behin betiko hasi daitezen". Hain zuzen ere, koalizio subiranistaren jarrera kritikatu dute, lanak "atzeratzea" ekarri dezakeelako helegiteak.

Helegitea Euskadiko Errekurtsoen Administrazioan dago momentu honetan, ebazpen zain

“Aireplanoaren zarata entzun nuenean aitari esan nion paperak botatzen ari zirela, baina bonbak zirela esan zidan”

Durangoko bonbardaketan hildakoak gogoan izango dituzte gaur arratsaldean Andra Marian egingo duten oroimen ekitaldian. Aurten, Juan Uribe 96 urteko durangarra omenduko dute. 10 urtegaz bizi izan zuen bonbardaketa

DURANGO • JONE GUENETXEA

Juan Uribek argi gogoratzen du 1937ko Martxoaren 31n Durangon gertaturikoa. 10 urte zituen arren, egun hartako detaile guztiak ondo gordeta ditu memorian.

Zelan gogoratzen duzu bonbardaketaren eguna?

Cornelioren txaletean egon nintzen, gaur egun ertzain etxea dagoen lekuan, aitagaz soloan goldaketan, bertan patata ereiteko gero. Aireplanoaren zarata entzun eta gora begiratu nuen. Aitari esan nion paperak botatzen zebiltzala, baina aitak esan zidan bonbak zirela. Arineketan arbola azpietan ezkutatu ginen, eta bin-baun hasi ziren bonbak. Behiak hartu eta etxera joateko esan zidan aitak. Nire arreba Feliren bila joan zen. Harek 9 urte zituen. San Roketik Durangora esnea ekartzen zuen, bezeroei eramateko. Bitarte horretan, sasoi hartan, ez zegoen etxerik. Etxera bidean, behiekin Kurutziaga hotelaren ingurura joan nintzen. Hildakoak ikusten hasi nintzen. Komentu kaletik aurrera joan nintzen, eta Zeharkaletik. Ni arin eta behiak arinago. Aita etxera etorri zen, hilerritik zetorren. Arrebaren abrigo berdina zeukan neskato baten gorpua ikusi zuen. Baina ile beltza zuen, eta arreba rubia zen. Oraindino ez zen etxeratu. Berriro joan zen hilerrira, arreba han zegoen ikustera. Bien bitartean, arreba etxera etorri zen. Miliziano batzuek aterpe baten sartu zuten, eta hantxe eduki zuten eurek etxera joateko agindu arte. Andra Maria inguruan dena kea ikusten zen. Arratsaldean metrailadoreekin etorri ziren. Zuloa zen dena. Zanga artean sartu nintzen. Bat edo bi hil zituzten.

Eta hurrengo egunean zer egin zenuten?

Biharamunean Oromiñora eraman ninduten, amama eta osabak han nituen eta. Handik bueltan, erreketeak kainonazoka hasi ziren estazioan. Tren bat prest zegoen eta hara sartu nintzen. Bilbon bajatu nintzen. Soldadu batzuek ezagutu egin ninduten. Egun bi geroago aita bila etorri zen. Ordurako Karrantzan zeuden errefuxiatuta. Handik Torrelavegara joan ginen.

Bueltan zer topatu zenuten?

Oromiñoko amama Bustintzako etxea zaintzen zegoen, bestela etxea galduko genuen. Guk ereinda utzitako patata apurrak batuta zituen. Sasoi latza zen. Geroago, zapatuko plaza egun baten paliza handia eman zidaten euskaraz berba egitearren.

Zuen aita kartzelan egon zen.

Aita gudaria zen. Kartzelara eraman zuten, Karmelora. Astean kamioi bete lagun fusilatzen zuten eta bera ere hori noiz gertatuko zain zegoen. Hilerriko fusilamenduetan parte hartu izana leporatzen zioten. Baina egun hartan San Frantziskoko mojekin egon zen, inausketa lanetan, eta ez zuen zerikusirik izan. Mojek Madrileko abokatuak bidali zizkioten eta epaiketa egin zioten. Akusazioa ez zen agertu eta epaiketa egin barik libre geratu zen. Alboko baserriko karlista bat izan zen salaketa ipini ziona.

Juan Uribe Alberdi
Bonbardaketaren lekukoa
DURANGO | **1926**

1968tik 1977ra arteko errepresioa aletu dute Durango 1936 aldizkariaren zenbaki berrian

Gure Kabiya eta Gazteleku tabernen kontrako atentatuak dokumentatu dituzte

Jimi Jiménez, Andoni Barreña eta Jon Irazabal, aldizkari berria eskuetan.

M31 • E.H.

Durango 1936 elkartearen aldizkariak zenbaki berri bat gehitu dio bere ibilbideari. Ale berrian, "eskuineko eragileek" 1968tik 1977ra arte eskualdean eragindako errepresioa jaso dute. Batetik, Durangoko Gure Kabiya eta Atxondoko Gazteleku tabernek 1975ean jasan zituzten atentatuak. Bestetik, oraindino argitu barik dagoen gertakari bat: Josu Retes durangarrari 1975eko urtarrilean gertaturikoa. Elkarteko kide Andoni Barreñak herritarrak deitu ditu sasoi hartako lekukotasunak ematera, urte haietako gertakariak dokumentatzeko. Aldizkaria Durangoko liburu-dendetan ipiniko dute eskuragarri, euro bian.

Elorrion memoria ibilbidea inauguratuko dute gaur

Gaur 86 urte, Aviazone Legionaria 213 zenbakidun eskuadrilla faxistak Elorrio bonbardatu zuen

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

1937ko maiatzaren 31n, Aviazone Legionaria 213 zenbakidun eskuadrilla faxistak Elorrio bonbardatu zuen. Eskuadrilla Soriatik irten zen, eta, guztira,158 bonba, 5.300 kilo bonba lehergarri eta 560 bonba su-eragile bota zituen. Gaur, maiatzak 31, 86 urte beteko dira gertakari hartatik, eta hori gogoratzeko, memoria ibilbidearen inaugurazioa egingo dute. Inaugurazioa 19:00etan izango da, 'Zalduntzi plazan', Berriotxoa eta San Juan kaleen arteko parkean.



Elorrioko bonbardaketa gogoratzeko, murala marraztu zuten.

Oizko monumentu megalitikoak lotuko dituen ibilbidea sortuko dute

Seinaleztapen, panel informatibo eta bestelako elementuekin, 2024ko udazkenerako amaitu gura dute. Mallabiko eta Berrizko udalen eta Jaurlaritzaren artean finantzatuko dute proiektua

Igor Agirre Mallabiko alkatea, Juan Carlos Quintana arkeologoa eta Orlan Isoird Berrizko alkatea, proiektuaren aurkezpenean.

MALLABIA/BERRIZ • JOSEBA DERTEANO

Iaz argitara eman zituzten Oizko monumentu megalitikoen balioa azpimarratzeko, ibilbide berri bat sortuko dute. Ibilbideak monumentu horiek eta han inguruan dauden beste elementu historiko batzuk lotuko ditu. Ibilbidean seinaleztapenak eta panel informatiboak ipiniko dituzte, besteak beste, eta 2024ko udazkenerako prest egotea itxaroten dute.

Ibilbideaz gainera, Oizko Ibilbide Megalitikoak teknologia berrietan oinarrituriko baliabide didaktikoak izango ditu, eta garrantzi berezia emango diete 3D dokumentazioari eta errealitate birtualari. Formatu horretan monumentuen berreraikuntza birtualak egingo dituzte eta Berrizko eta Mallabiko udalen webguneetan ikusi eta deskargatu ahal izango dira. Material digitala ibilbideetako paneletatik deskargatzeko aukera ere eskaini gura dute, QR kodeen bitartez.

Indusketak Ipiñarrietan

Ipiñarrietako tumuluaren inguruan "indusketa txiki bat" egitea izango da aurtengo beste ekintza bat. "Morfologia arraroa" duen gunea da eta gehiago jakin gura dute. "Egitura aldatuta badago, errestaurazio teknikak erabilita gunea finkatuko dugu", azaldu zuen Juan Carlos Quintana arkeologoak martitzeneko prentsaurrekoan.

Aipaturiko lan horiek guztiek 82.316 euroko aurrekontua dute. Berrizko Udalak 21.323 euro ipiniko ditu eta Mallabikoak 20.138. Gainerakoa Eusko Jaurlaritzako diru laguntza bategaz estaliko dute.

Menhir posible bat

Iaz argitara emandako aurkikuntza megalitikoen ondoren, zundaketa bidezko prospekzio gehiago egin dute. Euretariko batean elementu berri bat aurkitu dute eta "litekeena" da "menhir bat" izatea. Mota honetako monumentuak "oso arraroak" dira Bizkaian, Quintanaren esanetan.

Beste toki batean guztiz lurperatuta dagoen elementu bat aurkitu dute. "Dolmen txiki bat" izan daitekeela uste dute, baina oraindino ez dago seguru esaterik.

Izurtzako Udalak material berria erosi du mantentze-gimnasia klaseetarako

IZURTZA • J.D.

Izurtzako Udalak astean egun bitarako antolatzen ditu mantentze-gimnasia klaseak eta hor erabiltzen duten materiala zahartu egin da urterik urtera. Horregaitik, klaseetan parte hartzen dutenen iritziei jarraituta, udalak material berria erostea erabaki du. Besteak beste, 'step' izeneko plataformak erosi dituzte. Aurrekoak estuak ziren eta zabalagoak eskuratu dituzte, ariketak seguruago egiteko.

Besteak beste, 'step' plataforma zabalagoak erosi ditu, ariketak seguruago egiteko

Mantentze-gimnasiaz gainera, herritar batzuek yoga klaseak hartzen dituzte euren kontura antolaturiko ekimen batean, eta udalak ariketak egiteko kortxozko blokeak ere erosi ditu eurentzat.

Mañariko EH Bilduk maiatzeko hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu du

Gaur egungo alkate Ainara Otxotorena izango da alkategaia EH Bildutik maiatzeko hauteskundeetan

MAÑARIA • J.D.

Udal hauteskundeetarako hile bi eskas falta direnean, Mañariko EH Bilduk bere hautagaien zerrenda aurkeztu du. Ainara Otxotorena gaur egungo alkateak alkategai lez errepikatuko du. "Herriaren alde lanean jarraitzeko prest" dagoela adierazi du Otxotorenak: "Gura baduzue, hemen gaude herria hobetzen jarraitzeko". Zerrendako hautagai guztiak honako hauek dira, ordenan: Ainara Otxotorena Iriarte, Aitziber Areitio Iriondo, Endika Fernández Amesti, Martin Uriarte Inzunza, Garazi Etxebarria Bizkarra, Unai Uribarri Artabe, Irune Garitaonandia Etxebarrria, Ivan Vega Alberdi, Izaskun Gorostiza Oruna eta Mari Luz Gorostiza Arroitaonandia.

Mañariko EH Bilduren zerrendako hautagaiak.

Iñaki Garces otxandiarra baldintzapean aske geratu da

OTXANDIO • J.D.

Iñaki Garces Beitia preso otxandiarra baldintzapean aske geratu dela jakinarazi du Etxeratek. Garcesek 25 urte eman ditu kartzelan. 2017an bere zigorraren hiru laurdenak bete zituen. Handik lau urtera, 2021eko udaberrian, Basauriko espetxera hurbildu zuten, 245 kilometrotara dagoen Zaragozako Zuerako espetxetik. Basauriko kartzelan zegoela, beste preso batzuekin batera hirugarren gradua jaso zuen Eusko Jaurlaritzako Justizia Zuzendaritzaren aldetik. Eta eguazten honetan baldintzapean aske geratu dela jakinarazi dute.

25 urte eman ditu kartzelan. 2021ean, Zuerako espetxetik Basaurira hurbildu zuten

anboto kide

Anbotokideen txokoa

APIRILEKO ZOZKETAK

Xiberu tabernan bi pertsonentzako gosaria. Zornotza.

**Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.*

IRABAZLEAK

Jatordua Uxarten: Nekane Coello Onandia
Hondamendia: Garikoitz Elustondo

Okm: batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan!

Udal eraikinen kontsumoaren herena plaka fotoboltaikoen bitartez ekoiztea gura dute

Instalazioen ekoizpen elektrikoaren %100 udal instalazioetan erabiliko dela aurreratu dute

BERRIZ • J.G.

Berrizko Udalak lizitaziora atera ditu hiru planta fotovoltaikoren hornidura eta instalazioa. Udalak azaldu duenez, lehenengo instalazioak 100 kW-eko potentzia nominala izango du eta Berrizburuko zabortegi berreskuratuaren maila baten gainean egongo da. Bigarrenak 70 kW-eko potentzia nominala izango du eta Matzako ur biltegian gaituko da. Hirugarrena, 100 kW-ekoa, udal kirolegiko estalkian ipiniko dute. Instalazio guztiak autokontsumo modalitatean erabiliko dituzte, eta kolektiboan, soberakinak konpentsatuz. "Instalazioen ekoizpen elektrikoaren %100 udal instalazioetan erabiliko da. "Proiektuaren arabera, guztira 576 eguzki plaka

ipiniko dituzte hiru kokaleku horietan, eta planta fotovoltaiko horiek urtean 347.083 kWh sor ditzaketela uste dute. Horrek udal instalazioen urteko kontsumo osoaren % 32,3 ekoiztea ekarriko luke", azaldu du Orlan Isoird Berrizko alkateak.

Lizitazioaren oinarrizko aurrekontua 395.384,16 eurokoa da, eta horietatik 260.000 euro Europar Batasunak finantzatutako Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren barruan Energiaren Euskal Erakundeak (EEE) emandako diru laguntza batetik datoz.

"Ilusionatuta eta lanerako gogoz" aurkeztu dute Berrizko EH Bilduren hautagaitza

BERRIZ • A.M.

Josu Albizurik Berrizko EH Bilduko alkategai lez errepikatuko du. EH Bilduk Albizuriren esperientzia nabarmendu du, izan ere, hirugarren legegintzaldia izango du hurrengoa.

Lantaldea "gogotsu" aurkeztuko da maiatzeko udal hauteskundeetara, "ilusionatuta, eta lanerako gogoz, EAJren hamarkadatako kudeaketa ereduaren aurrean Berriz ezkerretik pentsatu, dinamizatu eta biziberritzeko prest".

Berrizko EH Bilduren hautagaien aurkezpena.

"Anitza, gaztea eta herrigintzan dabilen jendeak" osaturiko taldea aurkeztu du

Eneritz Azpitarte Aranzabal izango da zerrendaren buru egongo den alkategaia

ZALDIBAR • J.G.

Eneritz Azpitarte Aranzabal izango da maiatzeko hauteskundeetan Zaldibarko EH Bilduren alkategaia. Koalizio subiranistak joan zen barikuan aurkeztu zuen bere zerrenda. "Anitza, gaztea eta herrigintzan dabilen jendeak osaturiko taldea" dela azaldu zuten. Aurreko hamabi urteetan EH Bilduko zinegotzi eta alkate izan direnei eskerrak eman zizkien Azpitarte alkategaiak. Zerrenda osatzen duten kideak ere "goraipatu" zituen. "Herritik eta herriarentzat" egindako taldea dela nabarmendu zuen.

Zaldibarko EH Bilduren hautagaiak herriko plazan egindako aurkezpenean.

Iurretako EH Bilduk "aldaketa ilusio handiagaz sustatuko duen taldea" aurkeztu du

Ziortza Duñabeitia izango da Iurretako alkategaia

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako EH Bilduk maiatzeko hauteskundeetarako zerrenda aurkeztu zuen Dantzari auzunean antolaturiko ekitaldian. "Hamalau hautagaik osaturiko talde honek ilusio handiagaz sustatuko du aldaketa", azpimarratu zuen koalizio subiranistak eguaztenean egin zuen agerraldi publikoan.

"Iurretako auzoetan bizi eta bertako elkarteetan parte hartzen duten hautagaiak dira", azaldu zuten zerrendakideen inguruan. Ziortza Duñabeitia irakaslea eta LABeko delegatua izango da alkategaia.

Iurretako EH Bilduren zerrendakideak.

EAJk "esperientzia eta inplikazio handiko" hautagaitza "konprometitua" aurkeztu du Iurretan

Iñaki Totorikaguenak zerrendaburu errepikatuko du eta, azaldu duenez, "talde anitza eta konprometitua" izango du beragaz

IURRETA • A.B.

Iurretako EAJk maiatzean izango diren udal hauteskundeetarako hautagaitza aurkeztu du, Iñaki Totorikagunea buru dela. Hauxe esan du Totorikaguenak: "Proiektu plural bat aurrera eramateko ilusio eta gogo handiko emakume eta gizonen talde bat aurkezten dugu, non iurretar guztiok gustura egongo garen, bere nortasunaz harro, aniztasuna eta desberdintasuna baloratzen eta errespetatzen dituen herri baten alde egiten dugulako". Eta gaineratu du: "Orain arte lez hurbiltasunez eta entzute aktiboz gobernatzea da gure helburua".

Iurretako EAJren hautagaiak maiatzeko hauteskundeetarako.

Euskal Herri osoko 18 landare hazle batuko dira Garain apirilaren 2an

GARAI • EKAITZ HERRERA

Datorren apirilaren 2an, Euskal Herri osoko landare hazleak eta lorezaintza enpresak batuko dira Garain. Udalak eta Urkiola Landa Garapenak Landare eta Lorezaintza azokaren bederatzigarren edizioa antolatu dute. Besteak beste, landare apaingarriak, zuhaixkak, orturako haziak, landare ekologikoak, landare txikiak, lorezaintzareko tresneria, egurra eta artisautza lanak eskuratu ahalko dira. Guztira 18 dira Garaira gerturatuko direnak. Horrez gainera, eskualdeko 4 ekoizlek baserriko produktuak ipiniko dituzte salgai. Azoka 10:00etatik 15:00etara egongo da salgai.

Udalak jakinarazi duenez, aurten ere kontsigna zerbitzua egingo da erosketak bertan gorde ahal izateko. Kontsigna zerbitzu hori erabiltzen duten erosle guztien artean Etartie proiektuko produktuekin osaturiko otzara egingo dute zotz.

Zabaldu dituzte Iurreta eta Zornotza arteko Bizipistaren lehenengo 5,5 kilometroak

Mallabienatik Zornotzara doan tartea zabaldu dute, bi kilometroren faltan. Sei aste barru amaituta egongo da

DURANGALDEA • EKAITZ HERRERA

Bizkaiko lehenengo Bizipista denaren lehenengo bost kilometroak erabilgarri daude martitzenetik. Iurretako Mallabiena industrialdetik Zornotzarainoko tartea, hain zuzen ere. Zornotzako herrigunea lotzeko falta diren kilometro biak sei aste barru zabalduko dituzte, eta korridorea oso-osorik lotuko dute horrela. Bizkaiko Foru Aldundiak egindako aurreikuspenen arabera, Iurreta eta Zornotza arteko Bizipista egunean 1.000 erabiltzaile izatera ailegatu daiteke. Bizipistaren ezaugarriak honako hauek dira: 5,65 metroko zabalera dauka guztira. 3,8 metroko zabalera bizikleten mugikortasunerako, eta beste 1,85 oinezkoen erabilerarako.

Agintari politikoek martitzenean inauguratu zuten Bizipista.

Durangaldea asteon

Eskualdeko enpresetan 11 lantegi berri batu dira euskara sustatzeko Landue proiektura

DURANGALDEA | Durangaldeko lantegietan euskara sustatzeko Landue proiektura 11 enpresa gehiago batu dira eta 26 izango dira aurrerantzean. Baturiko azkenak hauek dira: Lasuen, Malda Bike, Urkiola Landa Garapena, Sorland, Durangaldea Enpresa Ekimena, Hirukobat, Padelko, Ozasan, Garaiko Landetxea, Saltsan Katerin eta Begilan. Enpresok sinatze ekitaldia egin zuten Elkartegian.

Ikastetxeetan sukaldea ipintzeko eskari bateratua egin diote Hezkuntza Sailari

DURANGALDEA | *Gure platera, gure aukera* plataformako kideek —tartean dago Berton Bertokoa dinamika— eskari zuzen bat helarazi diote Hezkuntza Sailari: Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako ikastetxe publikoetan sukaldeak ipintzea. 17 ikastetxek erregistratu dute eskaera, tartean, eskualdeko lauk: Durangoko Zabalarra, Zornotzako Larrea, Traña-Matienako eskola eta Atxondokoa.

Jaizale txistulari elkarteak Durangoko kaleak eta auzoak alaituko ditu uztailera arte

DURANGO | Jaizale txistulari taldeak bere kalejiren egutegia aurkeztu du. Besteak beste, Bartolome Ertzillako ikasleen laguntza izango du kalejiretan. Inoiz txistua jo dutenak ere gonbidatu dituzte ekimenera. Hauek dira datak: apirilak 23; maiatzak 1 eta 27; ekainak 11; eta uztailak 22 eta 31. Maiatzaren 7an, berriz, kontzertua eskainiko dute Matienako elizan, San Prudentzio jaietan.

"Har Hik etarrak" taldeak irabazi du Berbarok antolaturiko Labur Esanda film labur lehiaketa

DURANGO | Zapatu gauean Labur Esanda film laburren lehiaketaren emanaldia egin zuten, Plateruenean. Dozenaka lagun bertaratu zen emanaldira, giro ezin hobean. Lehiaketan zortzi taldek izena eman bazuten ere, azkenean bostek aurkeztu zuten film laburra. Parte hartzaileek 24 ordu izan zituzten film laburrak grabatzeko. Irabazleak "Har Hik etarrak" taldeko kideak izan ziren.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTOren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

Politikan

Mireia Elkoroiribe
Zenikaonandia
EAJ

Osasun-zentro berria, garai berriak

Osasun Sailak baieztatu du, Durangok eta Durangaldeak osasun-zentro bat behar dutela, Bereizmen Handikoa edo Ospitalea bezala deitu ahal diogu, baina, azken finean, osasun-zentro bat, ditugun bi anbulatorioak batuko dituena eta durangarrei eta eskualde osoari kalitatezko osasun-zerbitzua emango diena. Horrek, beste behin erakusten du EAJ-PNVren proposamena beharrezkoa, bideragarria, egingarria eta oso serioa dela, Durangoko bizi-kalitatea hobetzeko helburu bakarrarekin egindako proposamena.

Durangoko EAJ-PNVren proiektua Gernikako osasun-zentroaren antzekoa izango da. Ospitalizaziorik gabe, proba diagnostikoak egiteko (mamografiak,...), kanpo-kontsultak artatu, etxeko ospitalizazioa erraztu, 24 orduko urgentzia potenteak izan, eta bestelako zerbitzuak eskaini eta bermatu ditzakeena. Horrek, gainera, erreferentziazko ospitalera beharrezkoak ez diren lekualdatzeak ekidingo luke.

Zentro hori irisgarria ere izango da, garraio publikoaren hurbiltasunari esker. Eta Osakidetzak jarritako baldintzak ikusita, argi dago leku egokiena Trenbideko BEPBren espazioa dela. Bertan, jasota zegoen ekipamendu-eraikin bat, baina egungo gobernu-taldeak ekipamendu hori ezabatu nahi du inork oraindik ikusi ez duen aurreakordioaren bidez. Oraindik garaiz gaudenez, eskatzen diogu udal gobernuari hobeto pentsatzeko eta aurreakordio hori bertan behera uzteko. Hori da une honetan behar duguna, Osasun-zentro berriarekin aurrera jarraitzeko. Esan diezaiogun Bai osasun-zentro berriari eta ireki dezagun ilusio handiko garai berri bat.

SEKUENTZIARI JARRAITU

Hartu margoak eta jarraitu sekuentziari.



LOTU ITZAZU

Lotu ezazu mozorroa pertsonaiagaz.

A

B

D

E

F

G

H

1

2

3

4

5

6

7

IRATXE ETXEANDIA

'Hitzekin jolasean'

MUSIKA **IURRETA :: Apirilak 1**

Esti Markezek kontzertua emango du Iurretako Amezketa auzoan

Esti Markezek bakarkako bere lehenengo diskoa plazaratu zuen udazkenean, *Hitzekin jolasean*. Pop-rock doinuekin osaturiko lana da neurri handi batean, nahiz eta estilo anitzekin jolasean jarduteko aukera eman dion. Aiako abeslariak berak sortu du diskoan baturiko musika guztia, baita letrarik gehienak ere. Apirilaren 1ean, zapatua, Iurretako Amezketa auzoan aurkeztuko du diskoa. *Auzorik auzo* kultur egitarauaren barruan emango du kontzertua, 18:00etan.

Markezek aurten ekin dio bakarkako ibilbideari, eta bide luzeagoa duten beste musikari batzuen esperientziagaz eta profesionaltasunagaz uztartu ditu bere gaztetasuna, freskotasuna eta ahots bereizgarria. Zuzenekoetan Dánae Riaño, Iker Lauroba eta Josu Erviti izango ditu bidelagun.

Martxoaren 31n

DURANGO ekitaldia
Lehenengo aire erasoa gogoratzeko alarma hotsa, 08:30ean, Andra Mariko kanpandorrean.
Biktimen omenezko sua, 08:30ean, Andra Mariko elizpean.
Bigarren aire erasoa gogoratzeko alarma hotsa, 17:45ean.
Bonbardaketan hildakoei oroimen ekitaldia eta lore-eskaintza, 19:30ean, Andra Mariko elizpean (Gerediaga eta Kriskitin).

ELORRIO bertsoak
Durangaldea Uztabarritzen III. Bertso Zirkuitua: Aitor Bizkarra, Araitz Katarain, Pablo Salterain eta Miren Artetxe, 20:00etan, Gaztetxean. Gai jartzailea: Ainhoa Urien.

ELORRIO ekitaldia
Memoria ibilbidearen inaugurazioa, 19:00etan, Zalduntzi plazan (Laumunarrieta).

IURRETA ipuinak
'Baziren behin neska abenturazaleak eta mutil ameslariak' (Bea Egizabal), 17:00etan, bibliotekan (3-5 urte). Sei urtetik gorakoentzat, 17:45ean.
'80 amandre' (Dorleta Kortazar), 19:00etan. Helduentzat.

OTXANDIO murala
Herri murala, 17:30ean.

Apirilaren 1ean

ABADIÑO antzerkia
Mujeres lorquianas o llagas del amor (Ucálito teatro). 19:00etan Errota kultur etxean.

DURANGO antzerkia
'Hondamendia' (Axut! eta Artedrama konpainiak), 19:00etan, San Agustin kulturgunean.

DURANGO kontzertua
Neomak + Sua, 22:00etan, Plateruena Kultur Aterpean.

DURANGO kontzertua
Udaberriko Kontzertua: Tabira Musika Banda (Zuz: Urtzi Iriondo Oliden), 19:00etan, Andra Marian.

Durango bisita gidatuak
'Aztarnak' ibilbide gidatuak, estereoskopioekin, Kurutzesantutik: 10:30ean (gazteleraz) eta 12:30ean (euskaraz). Izena eman behar da 946 818 066 telefono zenbakira deituta edo *gerediaga@gerediaga.eus* helbidean

GARAI kontzertua
Bilboko Koralak Valentin Zubiaurrek orain 150 urte Erroman idatzirirko 'Pasioa' konposizioa interpretatuko du, 18:30ean, Elizabarrin.
Bigarren emanaldi bat ere egingo dute, 20:30ean.

IURRETA jaia
Iurretako VI. Beer Azoka, 12:00etan hasita, Askondon.
ZORNOTZA musika
'Banda atzotik gaur arte' (Zornotzako Musika Banda), 20:00etan, Zornotza Aretoan.

Apirilaren 2an

DURANGO dantzaldia
Nagusientzako dantzaldia, 18:30ean, Landako Elkartegian.

DURANGO kontzertua
'A lo divino' (Doinuzahar ganbera abesbatza), 19:00etan, San Frantzisko elizan.

Apirilaren 3an

ZALDIBAR film laburrak
Mendi Film Festival: 'Iretargi' + 'Tofol Castanyer, El Corredor Infinit' + 'De L'ombre à la Lumière' film laburren emanaldia, 18:30ean, liburutegi zaharrean. Zaldibarko VII. Mendi Jardunaldiak.

Apirilaren 3ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Martxoak 31: Durango atzo eta gaur', bonbardaketek kalteturiko guneetan.

Apirilaren 5etik 7ra bitartean

DURANGO antzerkia
Durangoko Pasinoa, 21:00etan, Santa Anan. Juan Itziar elkarteak antolatuta.

Apirilaren 7an

DURANGO antzerkia
'Tontolapiko eguna', umore ikuskizunen maratoia. 12:00etatik 22:00etara, Aurora Abasolo parkean eta Landako Gunearen eta Plateruena Kultur Aterpearen inguruetan.

Apirilaren 14an

ELORRIO antzerkia
Miss Spein (Las Paralelas), 20:00etan, Arriola antzokian.

Apirilaren 15ean

GARAI bertsoak
Durangaldea Uztabarritzen III. Bertso Zirkuitoa: Janire Arrizabalaga, Bittor Salterain, Miren Amuriza eta Andoni Egaña bertsolariak, 19:00etan, probalekuan. Gai jartzailea: Iruri Altzerreka.

Apirilaren 16an

ABADIÑO kontzertua
Dube, 13:30ean, Amaraun Arte Fabrikan.

ANBOTOko agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi **agenda@anboto.org** helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

Zinema

:: Berriz
KULTUR ETXEAN
• ***El Triángulo de la tristeza***
barikua 31: 19:30

:: Durango
ZUGAZA ZINEMA
• ***Dungeons & Dragons***
barikua 31: 18:15 / 21:00
zapatua 1: 17:15 / 20:00
domeka 2: 17:00 / 19:45
astelehena 3: 17:45 / 20:15
martitzena 4: 17:45 / 20:15
eguaztena 5: 19:00

• ***Oso vicioso***
barikua 31: 18:45 / 21:00
zapatua 1: 17:00 / 19:00 / 21:00
domeka 2: 18:15 / 20:15
astelehena 3: 18:00 /20:15
martitzena 4: 18:00 /20:15
eguaztena 5: 19:00

• ***Loli tormenta***
barikua 31: 18:45/ 21:00
zapatua 1: 17:00 / 19:00 / 21:00
domeka 2: 16:45 / 19:30
astelehena 3: 18:15 / 20:15
martitzena 4: 18:00 / 20:15
eguaztena 5: 18:00 / 20:15

• ***Siempre contigo***
eguaztena 5: 19:00

::Elorrio
ARRIOLA ANTZOKIA
• ***The Quiet Girl***
zapatua 1: 20:00
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:00

::Zornotza
ZORNOTZA ARETOA
• ***Mari(dos)***
barikua 31: 20:00
domeka 2: 20:00
astelehena 3: 20:15

• ***King, mi pequeño rey***
zapatua 2: 17:00

• ***Decision to leave (bikoiztuta)***
martitzena 4: 20:15

Durangoko Pasinoa, "iazko arrakasta itzela" errepikatzeko asmoagaz

Juan de Iciar elkarteko kideek belaunaldi aldaketa egonkortu dela azpimarratu dute; apirilaren 5ean, 6an eta 7an egingo dituzte emanaldiak, 21:00etan, eta sarrerak salgai daude

Durangoko Pasinoko parte hartzaileak, udal ordezkariekin.

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

COVIDak eragindako pandemiagaitik indarberriturik irten den egitasmo bakarrenetarikoa da Durangoko Pasinoa, Ima Garrastatxu Durangoko alkatearen esanetan. "Odol berriak Santa Anako plaza hartuko du beste behin ere. Pasinoa erreferentziazkoa bilakatu da urteetan egindako lanagaz, eta Durangon zorte ikaragarria dugu talde lanean eta familian egiten den ekimen honegaz, herrira turista asko erakartzen ditu eta", azaldu du prentsaurrekoan. Juan De Icíar elkarteko kideak ere pozik agertu dira azken urteetan lanak eduki duen harreragaz. "Lan itzela suposatzen du Durangoko Pasinoa egiteak; oso pozik gaude herritarren erantzunagaz, Durango erreferentziazko bihurtzen laguntzen du eta", azaldu du Susana Alarcón Juan de Icíar kultur elkarteko presidenteak. Hala ere, herritar gehiago joateko deia egin du. "Ez dugu gura herritarrak obra ikustera etortzea soilik; parte hartu dezaten gura dugu, etortzea eta probatzea. Bakoitzak bere erara disfrutatu dezake esperientzia itzel hau", gehitu du.

Markos Echartek errepikatuko du zuzendari lanetan, iazko debutaren ondoren. "Urte bian Pasinorik barik egon eta gero, iazkoa itzela izan zen. Iazko arrakasta itzela izan zen, ikaragarria ikustea zenbat jende etorri zen plazara eta zenbat gaztek parte hartu zuten. Emozionatu egiten naiz gogoratuta bakarrik", esan du Echartek.

Ama-semeak protagonista

Durangoko Pasinoak 28. edizioa izango du aurten. Mikel Ceide sartuko da Jesus protagonistaren azalean. "Errespetu handiagaz hartuko dudan erronka da, eta oso pozik egingo dut ama (Mariola Fernández, berak egingo du Mariarena) alboan dudala", azaldu du Ceidek.

110 bat lagunek parte hartuko dute antzezlanean, eta ohikoa den lez, bordu bi inguruko ikuskizuna izango da. Sarrerak salgai daude *www.durangokopasinoa.com* webgunean.

Julen Apella berriztarrak Donostia Kultura VI. poesia lehiaketa irabazi du

'Postal bat desertuan' lanagaitik jaso du saria; Balea Zuriak argitaratuko dio lana, eta 1.000 euro jasoko ditu

LITERATURA • A. M.

Julen Apella Santamariak (Berriz, 1998) Donostia Kultura poesia saria jaso du *Postal bat desertuan* lanagaitik. 1.000 euroko sari ekonomikoa jasoko du, eta, horrez gainera, Balea Zuria argitaletxeak idazlana argitarauko du; Gainera, idazle berriztarrak Imanol Larrinagaren margolan bat ere jaso du. Epaimahaikideek balorazio hau egin dute: "Ahots gazte baino sendo bat dago liburuaren atzetik, erreferentzia eta eragin ugari erakusten duena. Trebeki uztartzen ditu metaliteratura eta kritika soziala, hizkera landuz eta irudirik iradokigarrienak erabiliz, gogoetari bideak irekiz. Belaunaldi baten ahots gisa ere altxatzen da, baina aldarrikapena eta munduari modu kritikoan begiratzeko jarrera lirismoz lantzen du. Poema askotan bat egiten dute egunerokotasunaren ajeek eta paisaiak, eta liburuari osotasuna ematen dioten zenbait osagai baliatzen ditu: zapatak, oinak, bidea, hegoak, mugimendua, denbora, erlojuak". 2019an Elena Olave durangarra finalista izan zen, *Zeldak* poema liburuagaz.

Julen Apella Euskal ikasketetan graduatua da EHUn, eta Literatura Konparatua eta Literatur Ikasketak masterrak ere egin zituen. *Postal bat desertuan* publikatu duen lehenengo lana da.

Julen Apella berriztarra.

Jose Manuel Rozasen lanekin erakusketa zabaldu dute Durangon, 26 urtean lehenengoa Bizkaian

'Berpizkundea' maiatzaren 21era arte egongo da ikusgai, Arte eta Historia museoan

ARTEA • ARITZ MALDONADO

40 urtean "inoren ahoan" egon ez den Jose Manuel Rozas artista zenaren ibilbideari eta obrei bizi berri bat emateko asmoagaz, *Berpizkundea* erakusketa ipini dute Durangoko Arte eta Historia museoan. "Jose Manuel Rozas hil zela 40 urte pasatu direla eta, bere irudiari bultzada berri bat emateko aprobetxatu gura izan dugu. Bizirik zegoenean errekonozimendu handia zuen artista izan arren, bere heriotzaren ondoren ezer gutxi jakin da berari eta bere lanari buruz", azaldu du Garazi Arrizabalaga museoko zuzendariak.

Maiatzaren 21era arte egongo da ikusgai erakusketa. Ohikoa den moduan, bisita gidatuak ere egingo dituzte. Horrez gainera, Ander Lopezek berbaldia emango du, maiatzaren 4an; Lopezek katalogoko testuak idatzi ditu. Bere berbetan, Rozasen heriotza "traumatikoak" sorturiko doluaren ondorio da haren figuraren eta lanen inguruan sorturiko ezezagutza; 1997an Bilboko Guggenheim museoan egin zen erakusketa bat bere lanekin, azkenekoz.

Reina Sofiaren bilduman

Bestalde, oraintsu jakinarazi dute ARCO Arte Azokako 26 lan erosi dituela Madrilgo Reina Sofia museoak; tartean, Karlos Martínez durangarraren lan bi.

Udaleko eta erakusketako arduradunak aurkezpenean.

Gai librean

Jesukriston heriotza

Euskal Herrian ez dugu atsedenik. Jaia gustatzen zaigu. Ez naiz kexatzen eh, ea "lelopoltsas" bat izan behar naizen, baina tira, ez dugu jaiegun gehiagoren beharrik berez (denak ondo etorriak!). Hala ere, ezagun bati entzun diot egunotan: “Jesus jaio zen eguna ospatzea ez, baina hil zen eguna, hori bai ospatu behar dugula!”

Martxoaren amaieragaz eta apirilaren hasieragaz, beste behin, hamaika ekitaldi berezi izango ditugu gurean. Badago martxoa Legebiltzarrean gaztelaniazko reggaetoiaren erritmora dantza egiten amaituko duenik... Herriaren duintasuna beste era batera defendatu behar dugula deritzot. Gaurtik hasita. Abadiñarra naiz eta ez dut nire herrian horrelako lanketarik bizi izan, ez dut 1936ko eta 1937ko bonbardaketen memoria durangar, otxandiar edo elorriar askok bezainbeste bizi. Gaztea naizen aldetik, gaurdaino memoriaren izenean egindako lanketa miresten dut, herrietako gazteek badakite nora jo beraien herriari buruzko kontakizunen berri izateko, hura bizi izan zuten senideak denok baditugu ere. Gaurko eguna gorriz markatzea ez da lanik egin barik lortu.

Igor Galarza Intxausti
Kazetaria

Durangaldea telebistara begira egongo da domekan, ez dut zalantza izpirik

Hori du gizakiak: dena bizi du ziklo bat legez, eta ezin du delako ziklorik zarratu barik utzi

Bestalde, apirila gogotsu hasiko dugu pilotazaleok. Iñakik esan ditzala esan beharrekoak ‘Jokaldia’ zutabean, baina Mallabitik eta Zornotzaraino, Durangaldea telebistara begira egongo da domekan, ez dut zalantza izpirik.

Horiekin guztiekin gutxi ez balitz, eta Jesusen heriotzaren dataren bueltan, Gazte Topagune bat antolatuko dute Elorrion. Inguruko asko nostalgiaz begira daude topaguneari, orain dela 21 urte bizitakoak gogoratzen hasiak dira. Konturatzen hasi dira 21 urte beraien bizitzaren erdia dela AKA (Also Known As ingelesez), zahartzen ari direla. Ni ere euren erritmo berera zahartzen ari naiz. Lagun batek esan dit ziklo bat zarratuko duela. Hori du gizakiak: dena bizi du ziklo bat legez, eta ezin du delako ziklorik zarratu barik utzi.

Hiru egun frenetiko izango dira, eta hor geratuko balitz tira, baina domekan beste zita garrantzitsu bat dugu: Aberri Eguna. Azken urteotan hainbeste arrakala sakon sortu dira Euskal Herrian, ez baitakit autoengainatzen ari garen ala ez. Aste baten laburpena egin dut, baina Jesusen Biblia baino luzeagoa izango delakoan nago. Egongo gara, bizirik banago.

MGEP
MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa Zikloak

- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak **Berria!**
- Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- Mekatronika Industriala
- Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio ikastaroa

- Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

#LanerakoGertu

ATE IREKIAK

Apirilak 1 11:00etan
Maiatzak 6 11:00etan

mondragon.edu/lanbideheziketa

“Txapelketan zaleen babesa sentitu dut eta badakit finalean ere hor egongo direna”

Aitor Elordik binakako txapelketa nagusiko finala jokatuko du domekan, Iruñeko Navarra Arena pilotalekuan

FOKU

PILOTA • JOSEBA DERTEANO

Mallabiko pilotariak profesionaletako seigarren finala jokatuko du asteburuan. Aurreko guztiak promozio mailakoak dira, baina domekako hitzordua binakako txapelketa nagusikoa da. Zabaletak eta biek Laso eta Imaz izango dituzte kontrario. Finalaren atarian "lasai" dagoela dio eta argi dutela zein joko egin behar duten.

Joan zen asteburuan, finalerako sailkapena lortu ostean penatuta ikusi zintugun Xabier Tolosaren lesioagatik. Lagun handia duzu?

Niri bakarrik ez. Esango nuke han geunden denoi eman zigula mina Tolosari gertaturikoak. Tolosa aspalditik ezagutzen dut. Bere lehenengo partiduak Biharko Izarrak txapelketan ikusi nituen. Kantxatik kanpora lagun handiak gara. Badakit, niri kostatu zaidan moduan, berari ere asko kostatu zaiona joan zen domekako moduko partidu bat jokatzea, aukera izatea, eta gertaturikoa pena izan zen. Horrelako kontuak kirolaren parte dira zoritxarrez, eta orain guztiz zentratuta nago finalean.

Finalera begira, zelan zaude fisikoki eta eskuetatik?

Ondo nago. Joan zen asteburuan, nahiz eta partidua hogeita bira heldu aurretik amaitu, ordura arteko sentsazioak oso onak izan ziren eta bete-betean helduko naiz finalera.

Hala ere, irudipena dut lehenengo fase bikain baten ondoren, finalerdietako ligaxkan apur bat gozakaitz ibili zaretela Zabaleta eta biak.

Bai, ligaxkan baino gozakaitzago ibili garela uste dut neuk ere, baina neurri batean aurkariek emandako mailagaitik izan dela esango nuke. Finalera begira horrek ez nau arduratzen. Zabaletak eta biok badakigu ehuneko ehuna ematen badugu edozeini irabazteko kapaz garena eta horretan ahaleginduko gara.

> ***Askotan planteatzen da immigrazioa alboko bide bat bezala, eta oso inportantea da jakitea***

Finala Navarra Arenan jokatuko da. Jokatu duzu inoiz frontoi horretan?

Bai, orain urte batzuk jokatu zuen, behin. Baina harrezkero denbora asko joan da eta frontoiko ezaugarriak ez nituen gogoan. Atzo bertan entrenatzeko aukera izan genuen eta apur bat ohitu ginen pilotalekura. Baina atzokoa alde batera utzita, han jokatzea nobedadea izango da.

Laso eta Imaz izango dituzue kontrario. Ligaxkan euren kontrako partidu biak irabazi zenituzten: 22-8 eta 22-11. Bigarrenean Eskirozek jokatu zuen Imazen ordez. Finalerdietan, ostera, eurak nagusitu ziren, partidu estu batean: 19-22. Aurrekariak ikusita, non egon liteke finaleko gakoa?

Final gogorra aurreikusten dut. Finalera heldu badira, zeozergaitik da. Ligaxkan ez ziren euren mailarik onenean ibili, baina finalerdietara oso ondo heldu dira. Behetik gora egin dute eta bikote arriskutsua dira. Irabazi gura badugu, gure mailarik onena eman beharko dugu.

Promozio Mailan bost final jokatu dituzu, baina hauxe da aurrenekoa txapelketa nagusi batean. Horrelako txapel baten atarian egoteak urduritasun estra bat ematen dio finalari?

Bueno, orain arte ez naiz urduri sentitu. Finalerdietan galdu genuen partiduak asko ikasteko balio izan zidan. Badakit finala bigarren partiduko mentalitateagaz jokatu behar dudana eta horretan ahaleginduko naiz.

Zein da mentalitate hori? Aukera duzunetan ausart jokatzea?

Bai. Mentalitate horri eskerrak heldu gara honaino. Argi izan dugu beti gure jokatzeko modua zein den, eta horregaz jarraitu behar dugu finalean ere.

Igartzen duzu final giroa Mallabiko kaleetan?

Asteek aurrera egin ahala igartzen da, bai. Pilota eskolako gazteekin egoteko aukera izan dut eta ilusionatuta daude. Txapelketa osoan zehar sentitu dut nire zaleen babesa eta badakit finalean ere hor egongo direna.

Ixone Sánchez —ezkerrean— eta Laia Cariñanos, Ourensen, irabazitako dominekin.

Ixone Sánchez Espainiako azpitxapeldun geratu da 16 urtez azpiko atletismo txapelketan

Bidezabal taldean dabil atleta abadiñarra. Bere taldekide Laia Cariñanosek urrea irabazi du 1.000 metroko proban

ATLETISMOA • J.D.

Joan zen asteburuan 16 urtez azpiko Espainiako atletismo txapelketa —pista estalian— lehiatu zuten Ourensen (Galizia). Durangoko Bidezabal atletismo klubak atleta bi izan zituen lehian eta biek emaitza bikainak lortu zituzten.

Ixone Sánchez Santos abadiñarrak zilarrezko domina irabazi zuen 600 metroko proban. Zapatuko finalerdian nagusitasunez sailkatu zen finalera, 1.36.26ko denboragaz. Finalean, azken metroetan erakutsitako adoreak eman zion domina. Laugarren tokian zihoan azken txanpan sartu zenean eta sekulako esprint bati eskerrak bigarren postuan zeharkatu zuen helmuga. Abadiñar gaztearen orain arteko lorpenik handiena da.

Bestalde, Laia Cariñanos Estalella bilbotarrak 1.000 metroko txapelketa irabazi zuen. Finalean, bere azkeneko 100 metroak itzelak izan ziren. Aurretik zituen denak aurreratu eta gutxienez segundo bateko aldea atera zien. Bere denbora, 2.53.02, Espainiako inoizko bosgarren denborarik onena da 16 urtez azpiko mailan.

Pistan ez ezik, krosean ere bikain dabiltza atleta biak. Orain asteburu bi, Iruñean lehiaturiko Espainiako kros txapelketan, Cariñanos azpitxapeldun geratu zen eta Sánchez laugarren tokian geratu zen.

Abadiñok mendi bizikletako Green Series egutegiko proba hartuko du domekan

Irteera eta helmuga Zelaietako San Vicente galdategiaren aurrean egongo da

Cafés Dromedario Flotamet taldeko Paul Mendizabal Bilboko proban. **MARTZEL ZUBIA**

MENDI BIZIKLETA • **JOSEBA DERTEANO**

Mendi bizikletako Green Series txapelketaren seigarren aldia martxan da. Aurtengo egutegia zortzi probak osatzen dute. Lehenengoa Bilbon lehiatu zuten, martxo hasieran, eta bigarrena Abadiñon izango da, domeka honetan. Abadiñok lehenengoz hartuko du Green Series-eko proba bat.

Abadiñoko hainbat gazte Cafés Dromedario Flotamet taldean dabiltza mendi bizikletan, eta txirrindularitza elkartekoak horregaitik animatu dira Green Series-eko proba antolatzera Abadiñoko Udalagaz batera. Kadeteetako lehenengo urtean bost abadiñar dabiltza. Hauetxek: Hegoi Arrinda, Ipar Arrinda, Markel Garitaonandia, Ander Mendizabal eta Paul Mendizabal. Paul Mendizabalek laugarren amaitu zuen Bilboko lehenengo proban, eta joan zen asteburuan zazpigarren geratu zen Nafarroan, UCI mailako mendi lasterketa batean.

Antolatzaileek 4,2 kilometro luze den zirkuitua prestatu dute. Irteera eta helmuga San Vicente galdategiaren aurrean izango dira. Hasi eta berehala, parte hartzaileek Mendilibarreko harbideko aldapa gogorra igoko dute. Ondoren, baso bideetatik ibiliko dira eta Atxarte egoitzaren ondotik igaro ondoren galdategira bueltatuko dira.

Lehenengo proba master mailakoa izango da, 09:30ean. Ordutik aurrera, mailarik maila irtengo dira. Eliteko azken proba 13:30ean hasiko da.

Maiatzaren 7an Berrizen txanda izango da. Iaz lez, aurten ere hartuko du Green Series-eko zirkuituko proba bat.

Apirilaren 7an Zornotzan hasi eta amaituko da Itzuliko etapa

Azkenengo kilometroetan Zornotzako auzobideetatik ibiliko dira txirrindulariak, herrigunera jaitsi aurretik

TXIRRINDULARITZA • **J.D.**

Apirilaren 7an Itzuliko etapa bat hartuko du Zornotzak. Etapak 166 kilometro ditu eta Arriagane industrialdetik hasiko da; Ekin enpresaren paretik, hain zuzen ere. Ekin 60. urteurrena ospatzen dabil aurten eta Itzuliko babesleetariko bat da. Ibilbide gorabeheratsu baten ondoren, azkenengo kilometroak bereziak dira Zornotzako hainbat auzotatik ibiliko dira eta. Larrabetzura heltzean hasiko da zati berezia. Larrabetzutik San Isidrora (Zornotza) joango dira; gero, herrigunera heldu aurretik Boroarantz hartuko dute; etapa hasi den tokitik pasatu, herrigunera jaitsi, berau zeharkatu eta Eubara joango dira. Euban San Miguelerantz hartu eta Tolsan industrialdera jaitsiko dira, ibilgailuen azterketa teknikoa egiten den ingurutik. Gero, Urumiñe, Txolon, Urritxe eta Epaltzatik igaroko dira. Azkenik, sasoi bateko Udaberri sariari keinu bat eginez, Autzaganetik bueltatuko dira herrigunera.

Itzuliko Ekin enpresako eta Zornotzako Udaleko ordezkariak etaparen aurkezpenean.

Jokaldia

Eutsi, Xabi. Zorionak, Aitor

Azken astean asko hitz egin da joan den igandean Bizkaia pilotalekuan gertatutakoari buruz. Dakizuen moduan, binakako txapelketako finalaurrekoa bertan behera gelditu behar izan zen Xabi Tolosak jasandako zuntz-haustura baten erruz eta, ondorioz, partidua galdutzat eman zitzaion Altuna-Tolosa bikoteari. Batzuek anoetarraren zorte txarrari egotzi diote ezbeharra; beste batzuek, ordea, enpresei aurpegiratu diete txapelketaren antolaketa pilotariekiko begirunerik gabe egina dela eta eskatzen duen exijentzia fisikoak eragin zuela, hein handi batean, pilotariaren lesioa.

Arrazoia bata zein bestea izan, lesioa gertatu arte bete-beteko partidua jokatzen ari ziren, eta pilotazale guztioi uzkurtu zitzaigun bihotza Xabi, aurpegian inpotentzia ageri zuela, bi ukabilekin hausturaren imintzioa egiten ikustearekin batera. Izan ere, kariñoa erraz hartzen zaion kirolari horietakoa da gipuzkoarra: langilea, itzalpeko lanetan zaildua, inoiz keinu itsusirik egin gabea eta atsegina elkarrizketetan.

Iñaki Iza Zarazua
Pilotari ohia

Pilotazale denoi uzkurtu zitzaigun bihotza Xabi bi ukabilekin hausturaren imintzioa egiten ikusita

Horrela, pilota anoetarrarekin zorretan dago igandetik; itzuli diezaiola etorkizunean berak txapelketa honetan emandako guztia. Eutsi, Xabi!

Ezbeharrak ezbehar, txapelketari azken partidua gelditzen zaio eta zorigaitzeko gertaerak Aitor Elordi eraman du hau jokatzera. 22 tantora iristeko beharrik izan ez bazuen ere, mallabitarrak aurreko jardunaldian Labriten egindako partidu eskasak piztu zituen zalantzak uxatu behar izan zituen berriz ere: gainbehera etorriko ote zitzaion edo, jokoan hainbeste egonik, partiduaren presioa kudeatzeko gai izango ote zen izan ziren katedraren kezka nagusienak. Bada, hasiera baten berari ez zegokion roletik uxatu zituen, gainera. Bikotearen erantzukizuna bere gain hartu eta markagailuan zein jokoan aurkariek zuten aldea tantoz tanto eta erremate erremate murriztu zuen.

Argi dago gertatzen dena gertatzen dela merezitako bukaera izango duela Aitorren txapelketak, agerian utziz lau t'erdikoan egindakoa ez zela kasualitatea izan. Zorionak, Aitor!

Athletic Club Vs Real Sociedad

Apirilak 15 | 16:15ean

Athleticen eta Realaren arteko partidarako sarrerak San Mames VIP Area-ko palkoan

Athleticen eta Osasunaren arteko partidarako sarreren irabazlea:
Bego Zarate Arana

Athleticen eta Getaferen arteko partidarako sarreren irabazlea:
María Ángeles Plazaola Irizar

**Atheticek San Mamesen jokatuko dituen Ligako eta Kopako partida guztietako sarrera bikoitz bana (palkokoa) zozkatuko du ANBOTOk hemendik aurrera.
Oraindik Anbotokide ez bazara, ez galdu zozketa hauetan eta ANBOTOk egiten dituen gainerakoetan parte hartzeko aukera eta egin zaitez Anbotokide!**

Zozketan parte hartzeko azken eguna: Apirilak 5, goizeko 10:00ak arte.

Okm:
batzen gaituen distantzia

Egin zaitez Anbotokide eta parte hartu gure zozketetan! > anboto kide

Botikak

BARIKUA, 31 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL,
ASKATASUN ETORB. 19 - DURANGO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, SAN MIGUEL
15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 1 · 09:00-09:00

MUGICA,
ANDRA MARIA 9 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

DE DIEGO,
INTXAURRONDO 22. - DURANGO

CAMPILLO,
MONTEVIDEO ETORB. 24 - DURANGO

BAZAN,
URIBARRI 5 - DURANGO

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GAZTELUMENDI,
J.A. ABASOLO 2 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA,
BERRIO-OTXOA 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA,
TRAÑABARREN 15. - ABADIÑO

RUIZ,
EL ALTO-BIDE ZAHAR 14 - ZORNOTZA

MELERO,
SAN PEDRO 31 - ZORNOTZA

GUTIERREZ,
TXIKI OTAEGI 3 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 2 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

ASTELEHENA, 3 · 09:00-09:00

NAVARRO,
ARTEKALEA 6 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 4 · 09:00-09:00

IRIGOIEN,
BIXENTE KAPANAGA 3 - IURRETA

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 5 · 09:00-09:00

SARRIA,
SASIKOA 17 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ,
URBITARTE POLIGONOA, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA,
SAN MIGUEL 15 - ZORNOTZA

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 6 · 09:00-09:00

BALENCIAGA,
EZKURDI PLAZA 8 - DURANGO

GOIRIA,
SABINO ARANA 6 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA,
LUIS URRENGOETXEA 5 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENEKO 14:00AK ARTEKO EPEA

Zorionak guztioi!

GOZATU GOZOTEGIA

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.**
Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
661 40 14 00
gozatudurango@gmail.com
Gozatu Gozotegia
gozatugozotegia

Zorionak, **Galder**! Martxoaren 29an zure lehen urtebetetzea izan da. Jarraitu egunak alaitzen zure irriarekin. Asko maite zaitugu. Musu asko familia osoaren partez.

Zorionak, **Ekain**! 10 urtetxu asko direz. Jarraitu beti bezain alai.

Zorionak, **Irati**! Jarraitu kirolagaz disfrutatzen urte askoan.

Zorionak, **Lier**, zure 9. urtebetetzean. Jarraitu orain arte bezalako mutil jatorra izaten. Patxo haundi bat etxeko danon partez!

Eguraldia

ZAPATUA 9° / 13°	ASTELEHENA 7° / 15°	EGUAZTENA 6° / 17°
DOMEKA 7° / 12°	MARTITZENA 6° / 15°	EGUENA 7° / 21°

DBH - BATXILERGOA

- Orokorra
- Arteak:
  Arte plastikoak, irudia eta diseinua
  Musika eta arte eszenikoak
- Zientziak eta teknologia
- Giza eta gizarte zientziak

GELA EGONKORRA ETA ZEREGIN IKASTEKO GELAK

INSTITUTUA
FRAY JUAN DE ZUMARRAGA-DURANGO

BATXILERGORAKO
AURREMATRIKULAZIO
EPEA:

**MARTXOAREN 27tik
APIRILAREN 21era arte.**

HEZIKETA ZIKLOAK

· **ERDI-MAILAKO ZIKLOA:**
- Natura Inguruneko gidari lanetako eta aisialdiko teknikaria

· **GOI-MAILAKO ZIKLOA:**
- Gizarte eta Kirol Irakaskuntzako eta Animazioko Goi-Mailako Teknikaria

"Akuarelan kolore guztiek bat egitea da ederrena"

Gerard Pararedak akuarelaz egindako komikiak lantzen ditu, akuarelaren freskotasunak erakarrita. Ume eta helduentzat akuarela tailerrak ematen ditu Abadiñon

Gerard Parareda Cullell

Akuarelazko komikiak egiten ditu

GIRONA | 1986

ABADIÑO • AITZIBER BASAURI

Gerard Parareda orain dela urte eta erdi etorri zen Durangaldera, Bartzelonatik (Herrialde Katalanak), lagun batzuen bitartez. Atxondon bizi da harrezkero. Joan zen urrian, Tailer-leku zabaldu zuen Abadiñon, akuarelaz egindako lanak sortzeko eta baita eskolak emateko ere.

Akuarelaz egindako komikiak egiten dituzu. Zergaitik akuarela?

Freskotasun handia duen teknika arina da, oso teknika espresionista. Gainera, asko gustatzen zait kalean margotzea, paisaia urbanoak margotzea, adibidez. Dena dela, komikiekin hasi ondoren murgildu nintzen ilustrazioan eta akuarelan.

> ***Ur askogaz lantzen den teknika da akuarela; horixe da duen politena hasieran apur bat beldurtu arren***
>
> -

Komikiaren mundutik zatoz, beraz.

Betidanik egin ditut komikiak. Baina orain bost urte modu serioan hartzea erabaki nuen, eta Gironatik Bartzelonara joan nintzen, JOSO eskolan trebatu eta espezializatzeko. Carles Pellejerogaz ere asko ikasi nuen. Paisaiak margotzen ditu gehienbat, eta beste ate bat zabaldu zitzaidan. Komikigintzaren eta ilustrazioaren munduan nabarmentzea oso gatxa da, ordu asko eskatzen du. Akuarelazko komikiak ez dira oso ohikoak, teknika digitala erabiltzen da gehiago.

Tailer-leku zabaldu duzu Traña-Matienan. Zein helburugaz?

Sortzeko espazio bat izan gura nuen lanerako. Hala ere, ikusi dut akuarela modan dagoela eta eskolak ematea erabaki nuen. Egonkortasun ekonomikoa ematen dit. Bada, hiru orduko eskolak ematen ditut: marrazketa eta irudia ilustrazioan sartzen ikasten dugu lehenengo, eta gero akuarelagaz jarduten dugu.

Zelako harrera izan duzu?

Pozik nago. Inoiz akuarelan aritu ez diren pertsonak ere etorri dira eta horrek bildur apur bat eragin dit. Baina nahiko azkar harrapatu dute. Akuarelagaz lan egin duten ikasleak ere baditut, gehiago espezializatzera datozenak. Eurengandik ere asko ikasi dut. Nahiko klasikoa naiz, eta, batzuetan, harritu egiten zaituen jendeagaz elkaratzen zara. Umeei ere erakusten diet.

Teknika gatxa da?

Ez da erraza. Hala ere, irudiak, ilustrazioak eta koloreak desberdinak diren arren teknikari heltzeko era berdina da beti. Apurka trebatuz joaten gara. Ur askogaz lantzen

> ***Gustatuko litzaidake modu serioan komiki bat publikatzea. Horixe da nire erronka, nire ametsa***
>
> -

den teknika da, horixe da duen politena, hasieran apur bat beldurtu arren. Oso teknika sikua erabilita, akuarelaren esentzia galduko dugu. Kolore guztiek bat egitea da ederrena; urari jariatzen utzi behar zaio. Zenbat eta gehiago kontrola galdu, orduan eta politago geratuko da, eta ate gehiago zabalduko zaizkigu.

Enkarguz lan egiten duzu?

Akuarelak salgai ditut, eta enkarguak ere hartzen ditut. Oparitzeko izaten dira, batez ere. Baina ez dut erretraturik egiten, horretarako erretratugileak daude.

Baina karikaturak egiten dituzu.

Bai, ez dago hainbeste espektatiba.

Publikatu duzu komikirik?

Autoedizioa egin dut, fanzineren bat lagunekin istorio labur bat kontatzeko... Asko gustatuko litzaidake era serioan komiki bat egitea, 70 orrialdeko istorio polit bat sortzea, irakurleak ulertzeko ondo egiteratutakoa, gidoi bategaz... Horixe da nire erronka, nire ametsa.

Lau-hortza

Martin Loizate Sarrionandia

Geroari

"Esaten digute: Jan eta edan! Zer duzue, alai zaitezte! / Baina zelan jan eta edanen dugu gero / Jaten duguna gosetuari kendua badiogu / Eta gure basoa egarrituak behar badu? / Eta hala ere jan eta edan egiten dugu."

Bere garaitik, garai ilunetatik, etorkizuneko jendeari mintzo zaio Bertolt Brecht, eta lerro horietan planteatzen du zapalduaren eta iraultzaren alde dabilenaren kontraesan zahar bat: injustizia eguneroko ogia denean, gozamenari bide ematearena.

Kontraesan horren sintesiaren bilaketa etengabearen emaitza izan dira, aurreko fase politikotik hona, *Martxa eta Borroka* jaialdietatik hasi eta datorren astean Elorrion ospatuko den *Gazte Topagunea* artekoak. Lan militantea eta aisia lotuz, gazteria errebeldea estetika, soinu banda eta errelato batekin lotzeko ahalmena izan duten mugarriak.

Garai hitsetan bizitzea tokatu zaigu guri ere: gerra inperialistak, krisi klimatikoak eta faxismoaren gorakadak ezaugarrituriko testuinguruan, geroarekiko espektatibarik eza da nagusi gazteon artean, eta mundu hobe baten ortzi-muga irudikaezina zaigu kasik. Dozenaka hitzaldi, ikuskizun eta kontzerturen artean, gai horiez arituko dira hiru egunez Martin Arbeo, Eraitz Saez de Egilaz edo Inna Afinogenova, adibidez.

Orainari idatzi dio Leirek. Ezin jakin datorren astean Elorrion egingo dugunak zer utziko duen gerorako, kanta eder bat eta milaka anekdotez gain (espero dut kontzerturik bertan behera ez geratzea dekorazioagatik). Baina iruditzen zait badauzkala osagaiak, ziklo politiko berrian, sintesi horren sinbolo izateko.

Eta bestela, poetak dioen moduan, etorkizuneko jendea izan dadila bihozbera gurekin.